

Azurmendi: lanak eta bermeak kulturgintzan

Ander Iturriotz Lauzirika

UPV/EHUko Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko irakaslea

Hesiodorena da *Lanak eta egunak* izeneko liburua. Bertan agertzen da lanaren lehen apologia izango dena, seguru asko. Bertan proposatzen da lana gogorkeria eta injustizia giro batetik irteteko eredu eta bidetzat. Garaia iluna baita Hesiodorena. Burdinazkoa.

Joxe Azurmendik eta gerraosteko belaunaldiak ere lana proposatu zuten egokitu zitzaizen garai historikoa eraldatzeko. Gogotik egin zuten lan, baliabide gutxirekin, baina nekerik gabe. Burdina zen erregimen frankista kriminala. Injustua, injustiziarik bada. Lan eskerga hari esker eraiki dira, hain zuzen, gaur egun kulturgintzan eta euskalgintzan indarrean dauzkagun arkitektura behinenak. Euskara batua, hezkuntza sistema, euskal unibertsitatea, euskarazko hedabideak, euskal literatura modernoa, bertsolaritza...

Heleniarren literaturan langile nekaezinak daude. Titanak eta Titanideak, hasieramasieran. *Teogonia*-n jaso zituen Hesiodok. Heroi zibilizataileak, gero. Beste eite bateko balentriak egin zituztenak. Ulisesen periploa, adibidez, itzulera luzea, *nostos*, Itakara iritsi arte. Besteak beste, Homerok jaso zuen ziklo mizenikoa. Langile nekaezin horien itzala izan zuten heleniarrek lagun, mende askotan zehar. Haien ereduarekin sortu zuten Mendebaleko lehen zibilizazioa. Zientzia, filosofia, artea, politika.

Titan bat da Azurmendi. Bizitza osoa eskaini dio lanari. Lanaren militante bipila izan da. Beste garai bateko pentsalari bat. Metodikoa. Diziplinatua. Filosofo handien estiloa izan du. Hegel bat gogorarazten zaio bati. Kant bat, bere lanetik, bere hiritik inoiz irten ez zena. Königsbergeko plazako erlojuaren orratzak ordura jartzen zituena, aurretik igarotzen zenean. Zaila da gaur egun halako biografia bat errepikatzea.

Titan baten indarrarekin ageri da Azurmendi bere garaian. Lan izugarriak egin ez ezik, berme teoriko sendoak jarri dizkio garai oso batean barrena garatu diren eztabaida gehienei. Bere inguruan piztu diren kezka ia guztiak funtsatu ditu filosofikoki. Euskara nahi izan denean bihurtu kultura berri baten ardatz, hizkuntzaren filosofiaz egin du hausnar. Nazionalismo moderno eta aurrerakoi bat nahi izan denean diseinatu, kulturaren oinarri fundatzaileaz luzatu da. Euskal herritasuna zalantzan jarri den bakoitzean erantzun du. Sakon. Tinko. Argudioak bilduz, aurreiritzi eta interes makurren aurrean. Arrazakeriaz. Bortizkeriaz. Historiaz. Kosmopolitismoaz.

Azurmendik jorratu dituen gaien artean, kulturgintzaz jardungo dugu artikulua honetan. Beste baterako utziko ditugu gainerako lanak eta bermeak: historia, etika, politika, antropologia... Bertan aurkeztuko diren ekarpen gehienak ez dira berri-berriak.

Beste artikulu batean landu nituen (Iturriotz 2010b). Haien inguruabarra argitzea eskatu zitzaidan, hain zuzen.

Kulturgintza lubakian

Lan baten handitasuna bere ezaugarriekin neurtzen da, batetik. Kantitateari eta kalitateari begira. Baina garrantzitsua da, halaber, lan hori egiteko erabili diren lanabesak, baliabideak eta, bestetik, izan diren eragozpenak. Ez du berdin lan egiten jakingarri guztiak eskura dauzkanak eta aurkikuntza bakoitza borrokatu behar duenak. Burdinazko garai batean, debeku eta errepresio sistematikoen artean, izugarri zaila zen lana. Horregatik hartzen du balio bikoitza gerraosteko belaunaldiak burutu zuen balentriak.

Euskararen eta euskal kulturaren jazarpena

Ez dugu ezer berririk ekarriko esaten badugu, frankismoaren menpean, jazarpen amorratua, sistematikoa, gaixotia jasan zutela euskarak eta euskal kulturak. Azken urteotan, asko izan dira ikerketak argitara ekarri dituen xehetasunak. Baten bat aipatzekotan, Xabier Irujok eta Iñigo Urrutiak (2011) egin zuten euskarari buruzko legediaren historia. Bertan jaso da, mendez mende, Espainiako Estatuak euskara debekatzeko agindu dituen legeak. Salbuespenik gabe, errege eta erreginak: Karlos III.a, Karlos IV.a, Isabel II.a eta Alfontso XIII.a. Primo de Riveraren diktadura etorriko da gero. Eta Francoren, berehala.

Frankismoarekin, urtez urte jarri dira debekuak. 1937: Euskara debekatu zen, jendaurrean eta kalean. Euskara debekatu, elizkizunetan. 1938: Euskara debekatu, erregistro ofizialetan. Euskal izenak debekatu. Euskara debekatu, berriro, elizkizunetan. 1940: Euskara debekatu, epaitegietan. Euskara debekatu, merkataritzan. 1944: Euskara debekatu, izkribu publikoetan. 1945: Euskara debekatu, marka komertzialetan. Euskara debekatu, barkuen izenetan. 1947: Euskara debekatu, prentsa idatzian. 1948: Euskara debekatu, eskoletan. 1954: Euskara debekatu, irratsaioetan. 1964: Euskara debekatu, diskoetan. 1964: Euskara debekatu, publizitatean. Ez zitzairen esparru bakarra ahanzi.

Euskal Memoria Fundazioak jaso ditu, halaber, debeku orokor horiekin batera, botere frankista noraino inposatzen zen hiztunengan (Anaut 2013). Izenak eta herriak jaso dira, lekukotasunak: Conchi Otegi, Eugin; Tomas Osoro, Bergaran; Maria Jesus Lopez de Bergara, Legution; Jeanne Arkondegi, Donibane Lohizunen...

Jazarpen sistematiko horren azpian egin behar izan zuen lan belaunaldi oso batek. Estrategiak asmatu. Ahaleginak bikoiztu. Ausartu, zigorrei muzin eginda.

Gabriel Arestik adierazi du, adibidez, Norbert Tauerri zuzendu zion gutun batean, zer-nolako trikimailuak erabili behar izan zituen bere bi alabei euskal izenak jartzeko:

Euskal izen bat imini nahi ukan nuen. Elizan eztago eragozpenik (gehienetan), baina juzgatuan ez tute uzten, ezin leike. Zer egin? Maiatzaren eztaikit ze egunean San Nereo ahaztu bat dago; haren andre-izen erderazkoa Nerea da, ta badakizu zer esan nahi duen honek euskeraz. Honela nik

deitzen diot: Nerea, alaba *nerea*. Beste alaba bat badaukat, izena badago hautatua: Guria, hortik eztakit nungo Santa Guria bat dagoelako. Holako tranpetan ibili behar dugu, libertatearen aurkientza honetan. (Aresti 1986: 152-153)

Jazarpen giro hura ez zen Espainiaren eksklusibotasuna. Jon Miranderi zor zaio, zentzu honetan, burdinazko legearen auzia faxismoari egozteko tentazioa haustea. Frantzia errepublikazaleak ez darabil oso bestelako politika. Per Denez adiskideari eskatu zion txostentxo baten bidez erakutsiko zuen nola ari zen jokatzeko Britainian Frantzia:

Frantziak politika gauzetan Breizh indargabetu badu, kulturazko nortasunik ere ez dio utzi. Haren hizkerari oldartu zaio izugarritzko eran. Ikastetxe, gudaletxe, hauzitegi, hots, laterriak dauzkan etxe eta tegi guzietatik ohildua izan da. Breiztar herriari bere mintzairaz iseka egitea, lotsa izatea irakatsi diote. Nola nahizko behaztopak ipini eta ipintzen dituzte breizel-egunkari edo aldizkarien bidean. Breizeraz idazten dutenei bizipidea kendu egin zaie, herbestera jo behar izan dute, ezin dira laterrian mutil izan. Berdin 1939 eta 1944-eant, frantziatarrek ahalegin guztia egin dute breizal igikuna zeharo deuserazteko: liburutegi osoak birrindu dituzte, breizerako idazki eta izparringiak debekatu, zuzendariak eta idazleak espetxeratu edo suizkilotu; atzerrira ihes joan behar izan dute beste batzuek. (Mirande, in Peillen 1981: 283)

Euskararen eta euskal kulturaren gutxiespena

Euskarak eta euskal kulturak jasan zuten jazarpena baino gorriagoa izan zen harekin batera eman zen gutxiespena. Jazarria altxatu daiteke jazartzailearen aurka. Gutxituak, ordea, bere burua zigortzen du. Bere nortasuna zauritzen. Bere haragizko arima.

Jurgi Oteizak Waldo Frank izeneko hispanista amerikarraren baieztapen batekin hasi zuen *Quousque tandem...!* liburu profetikoa:

Los vascos parece no haber tenido cultura. Su lenguaje no fue escrito, no tuvieron historia política ni social, no poseyeron una base ética ni una base religiosa. Si tuvieron cultura fue una cultura casi biológica que persistió en la sangre y en el instinto más bien que como concepto. (Oteiza 1971: 27)

Noiz arte iraun behar zuen euskalduna halako gehiegikeriei erantzun gabe? Erantzuten hasi zen Oteiza, amorru biziz. Erantzuten, belaunaldi berri oso bat. Kontzientzia argia zeukaten gerraosteko kulturgileek. Gutxiespena bizi zuten eguneroko zereginetan. Erantzuteko, gutxiespen historiko haren sustraiak ateratzen hasiko dira. Aresti, adibidez:

Lehenengo denpora zaharretan, euskaldunak Euskal baserrietatik Gaztelako eremu pobre eta hiri aberatsetara lan-bila ateratzen zirenean, guztiok dakigu nola hangotarrek haien mintzatzeko gaiztasunagatik barre egiten zuten, hau oso argiro ikus liteke lehenengo erdal literatura guztian, orduko gaztelatarrentzat euskalduna gauza barregarri bat izaten zen, arlekin bat, pierrot bat, bufoiantzeko bat. Euskaldunak hitzetan labur garelako ustea ere, hortik dator. (Aresti 1986: 54)

Behin eta berriro salatuko du Arestik Gaztelaren erantzukizun historikoa bizkaitarren mespretxuan:

Y cortos en palabras, más entonces, por dispares las lenguas, y tan diferentes, expresándose nuestros vizcaínos (así llamaban en Castilla a todo vasco) en un castellano repleto de solecismos, ‘las’ por ‘los’, y cientos de las llamadas ‘concordancias vizcaínas’, avergonzados de ser de otro ámbito cultural, de otro trasfondo étnico [...], veíamos su mofa, su befa, su burla, como en tantas representaciones teatrales pueda verse. (*Ibid.*: 97)

Gutxiespenaren historiari buruz ere asko ikertu da, aspaldian. Gutxiespenari buruz bezala, jazarpenari buruz. Aipatu beharrea gaude, inguruabar honetan, Joan Mari Torrealdairen lan eskerga bezain ezaguna. ‘Euskararen zapalkuntza (1936-1939)’ (1982) eta ‘Hizkuntz politikaren auzia’ (2001) artikulua euskaraz, eta, arrakasta handiagoa izan duten bi liburu, *El libro Negro del euskera* (1998) eta *Asedio al euskera* (2018) gaztelaniaz.

Azurmendi: harrokeriaren historia Espainian eta Frantzian

Inguruabar honetan kokatuko dugu Azurmendik burutu dituen lanetan lehena. Euskal munduaren, esan dezagun, euskal nazioaren jazarpen eta gutxiespen sistematikoaren historia ekarriko digu modurik zorrotzenez. Erromatarak. Eta godoak. Eta frankoak, Iparraldean. Eta, Erdi Aroarekin, gure historia modernoa: inperioa, estatu-aparatu suntsitzaileak, anbizio gordinenaren historia basatia, dominazioa, konkista, krimenez jositako mendeak (Azurmendi 2006: 8). Aurrera joango da denbora. XIX. eta XX. mendeak etorriko dira: gerra karlistak, emigratuak Ameriketara, foru-murrizketa, gerra, foruen abolizioa, diktadura militarra... Bataren atzetik bestea. Berrehun urteko estatu-terrorismoa, konkluitzen du Azurmendik (*ibid.*: 10).

Zapalkuntza militarra. Baina zapalkuntza militarrekin batera, indarraren arazoarekin batera, zapalkuntza ideologiko eta sinbolikoa: zapalkuntza politikoa bera baino arriskutsuagoa den zapalkuntza kulturala, hizkuntza-zapalkuntza, herri-nortasuna ahitzen duena, herritasuna mundutik desagerrarazten duena. Mendez mende gutxiuak euskaldunak, arbuiatuak, irainduak; mendez mende eboluzioan ere parte hartu gabe, munduan sortzen diren gizarte-molde politiko eta erlijiosoak baitaratu gabe, kultura, kulturaz osatu ezinean, aberastu ezinean; mendez mende borrokan euskaldunak: borroka armatua, eta borroka ideologikoa (Azurmendi 1992 [1998]: 61).

Azterketa historiko zehatzagoetan ezin sartuko gara. Baina, ez dugu gaia itxiko Azurmendik jaso dituen mespretxuaren lekukotasunak gogoratu gabe. Ugaria da Espainiaren eta Frantziaren historiak sortu duten testu ezberdinetan euskaldunoi egotzi zaizkigun epiteto arbuiagarrien zerrenda: erromanizatu gabeak, euskaldunak, kristautu gabeak, barbaroak, basatiak, arloteak, gerrazaleak, antropofagoak, errebeldeak, intsumituak, lapurrak, intzestua eta aztikeria praktikatzen dituztenak, mozkorrak... (*ibid.*: 61-89); leloak, euskaldunak, buru motzak, egoskorak, basatiak, indiarren parekoak (bertako indiarrek), menditarrak, eskola gabeak, iletsuak, azal beltzekoak, astoak –eta, gehiago–, astakirtenak, arloteak... (*ibid.*: 261-262, 279-280, 299, 303); ugariak euskaldunak arbuiatzeko erabili diren amorrutako eta gorrotoko adierazpideak besteen historia ilustratuetan.

Jakina, hain herri barbaroak hizkuntza barbaroa behar du izan: euskara tartaila da, basatia, zaunka bat, asto-arrantza bat, abere-hizkuntza; hitz egin ere, ez dute euskaldunek askorik egiten, mutu egon ohi dira; Espainian espainolez egin nahi izan dutenean, farregarri geratu dira (*ibid.*: 279, 304).

Azurmendi, beste hunkiberatasun bat ilustrazio erromantikoan

Etsipena elikatzeko arriskurik ere bazegoen. Besteek eraikitzen zituzten euskaldunon irudi makur horiek sinetsaraztekoa, alegia. Eta etsipenari aurre egin nahi zion belaunaldi batek ezin zuen ingurubil ilun batean sartu. Azurmendik begi klinikoa izan du beti. Estrategikoki jakin du jokutzen. Berak beste hunkidura bat ezagutu du nazio, hizkuntza eta kulturekiko. Alemanian, batez ere. Eta badaki zein garrantzitsua izan daitekeen erakustea, Europan, beste begi batzuekin begiratu zaiela euskaldunei.

Ilustrazio erromantiko alemana ekarriko du eredutzat. Nazio gutxituen eskubideez kezkatu baita: Korsikaz, Poloniaz edo Lituaniatz, adibidez, baina baita Euskal Herriaz ere.

Herderrek euskaldunon independentzia-zaletasuna goraiatu du, gure izaerari eusteko egin dugun ahalegina (Azurmendi 1992a: 213-214). Europarentzat aberastasun handia da Euskal Herria: ikertu egin beharko lituzke Europak euskal literatura, historia eta ohiturak (*ibid.*: 214). Galdu baino lehen.

Humboldttek harreman estua izan zuen Euskal Herriarekin, eta Azurmendik ondo-ondotik jarraitu du interes hori, bai baitaki klabe asko ematen dituela, kanpotik; askotan ikusten ez direnak, ikusi nahi izaten ez direnak, barrutik. 1799-1800.enean, Espainiara bidean zihoala, Euskal Herrira lehen aldiz etorri zenean (*ibid.*: 60-61), garai hartako kezkak zeuzkan gogoan: kulturen izaerari buruzko galdera, herrien inguruko jakin-nahia (Azurmendi 2007c: 28). Galdera eta jakin-min horiek erantzuten eta asetzen, Euskal Herrian hasi da Humboldt. Eskutitz batean, txundiduraz betea esango dio Goetheri zer ikusi zuen bertan:

Inoiz ez dut herri bat topatu, halako aiurri nazional autentikoa, estreinako ikusian ja hain originala sumatzen den fisionomia iroso duena. (Humboldtten 1799-11-28ko gutuna Goetheri, in *ibid.*: 61; Azurmendi 1999a: 80)

Euskal Herri autentiko horretan aurkitu du Humboldttek bere proiektu guztientzako norabide berria izango dena: hizkuntzen estudioa hasiko du (Azurmendi 2007c: 28). Eta hizkuntzen estudiorako, karaktere nazionalaz ikertzeko asmoa hartuko du (*ibid.*). Herderren hizkuntzaren jatorriari buruzko planteamendu iraultzailea berretsirik (*ibid.*: 55-57), arrazoimena hizkuntzarekin identifikatzen du Humboldttek: gizakiaren, pentsamenduaren eta hizkuntzaren arteko batasuna hautsezina da harentzat, gizabanakoa komunitatean existitzen eta komunitatean osatzen den heinean (*ibid.*: 60).

Pariseran itzuli eta urte osoa eman du euskaraz jabetzen, Euskal Herriari buruz informazioa biltzen; ostean, 1801ean, bigarren aldiz etorri da gure artera: notak hartu ditu, herriz herri, azpi-azpitik: Baiona, Donibane Lohizune, Jaizkibel, Pasaia, Donostia, Getaria, Markina, Durango, Gasteiz, Bilbo, Somorrostro, Gernika, Lekeitio... (*ibid.*: 29-

31). Ipuinak entzun ditu han eta hemen, grekoen antza duten ipuinak, eta kultur arketipoen teoria izango dena iradoki zaio... (*ibid.*: 136).

Ikerketa horren emaitzak ere eskaini dizkigu Azurmendik. Euskalduntasunaren definizio oso bat garatu du:

Euskalduna da, 1) nazio bat, euskara bere mintzaira duena eta hari suharki atxikia, alde guztietatik nazio-zentzua dariola, berezi eta bere mugen burujabe sentitzen dena monarkia handi baten pean ere; 2) hor garbi antzematen dena «herri baten karakterearen, haren hizkuntzaren eta haren lurraren artean dagoen korapilo estua»; 3) hizkuntza komunaren atxikitasuna eta dialekto oso ezberdinen diferentziak bateratzen dituen, hots, unibertsaltasuna eta indibidualtasuna elkartzeko dakiena, edo alderantziz esanda, berdintasuna bai, baina berdintasun orokorrari argoitzen zaion izpiritu lokal diferentziala bizia ageri-ageri duena herririk herri [...]; 4) lezio bat da, nola hizkuntza ez den gramatika eta hiztegiaren biltzen den masa hilotz hori, baizik eta herriaren ahotik dariona eta etxea bezala dena, non herria bizi den izpiritualki. (*Ibid.*: 62)

Ilustrazio alemanak Euskal Herriaz eta gure hizkuntzaz erakutsi duen kezka ez da berehala agortuko. Horren frogagarri, oso adibide deigarria ekarri digu Azurmendik: Euskal Elkargo bat –*Baskische Gesellschaft*– antolatu da Berlinen, 1886. urtean, euskararen alde eta euskararen ikerkuntzan interesatua, eta horrek bultzatu du, urte berean, *Euskara* aldizkaria (Azurmendi 1978b: 109), hain zuzen, Euskal Herrian Julio Urkixok sortutako RIEV baino lehenago (*ibid.*: 108). Hamar urtez iraun zuen aldizkariak eta hamazazpi zenbaki argitaratu zituen, gehi separata bat (*ibid.*: 110, 112), alemanez, bereziki, eta baita ingelesez, frantsesez eta euskaraz ere (*ibid.*: 110). Aldizkariarekin batera, liburutegi polita bildu zuten Berlinen, euskal gaiei buruz (*ibid.*: 112).

Ez zen izan Ilustrazio erromantiko alemana bakarrik, ordea, Euskal Herria ezagutzera gure artera etorri zena. Victor Hugo frantsesa ere Pasaian egon zen 1843an, Humboldt baino 42 urte beranduago, hain zuzen. Urte batzuk lehenago, 1811n, bederatzi urte besterik ez zituela, Baionara etorria zen, hilabetez, amarekin, eta ez zuen inoiz galduko haurtzaroko oroitzapen hura (Azurmendi 1985: 138): Euskal Herria – Irun, Donostia, Hernani–, bere historia sentimentalean, bere hunkiberatasunari atxikia geratu zen, nonbait, txiki-txikia zenetik. Azurmendik bihotz-bihotzetik eskertzen dio begirune hori.

Humboldték bisitatu zuen Euskal Herriak foruak zeuzkan bitartean, Victor Hugok Lehen Karlistadaren ostean ezagutu zuen gure herria –bigarren aldiz– (Azurmendi 2003b: 30). Baina, halere, ez du Espainiarik ikusten, ez du Frantziarik ikusten, Donostian; bai, ordea, euskaraz mintzo den herri bat: *La langue espagnole est ici une étrangère comme la langue française* (Azurmendi 1985: 144, 145). Eta Euskal Herrian ibili ahala –Hondarribia, Astigarraga, Tolosa–, are gehiago nabarmenduko du gure herriaren berezitasuna eta originaltasuna: *Ce n'est ni France, ni Espagne* (*ibid.*: 145).

Euskal Herriak aurreko lau mendeetan barrena Espainiaren eta Frantziaren indarraren aurrean izan duen adore politikoa miresten du: Euskal Herriaren espiritu errepublikazalea, bere batasuna, bere eskubideak eta foruak, bere izaera zaharra, hitz batean (*ibid.*: 146-147). Urtu egiten da ezagutzen ari den Euskal Herriarekin. Urtu egiten da, adostu egiten da, enpatia biziz, Miarritzen eta Pasaian, jendearen jantziak, kapelak, orrazkerak, gorpuzkerak erreparatzen dituenean, ohiturak –dantzak, kantuak,

jan-edan kontuak- ezagutzen dituenen, paisaia -kaleak, etxeak, elizak, mendiak, itsasoa..., basa-natura- begien bistan hartzen duenean: ez darama begian objektua - kanpoan- eta subjektua bereizten dituen oposizio cartesiarra (Azurmendi 2003b: 21, 1985: 141-142, 144).

Europari begira jarri baita Europa XIX. mende horretan; XVIII. mendean urruneko jendeak deskubritu zituen bezalaxe, XIX. mendean Europaren barruak deskubritu ditu Europak, jendea eta paisaiak: Europa, herrien Europa (Azurmendi 2003b: 15).

Literaturgile, artista, musikari eta pentsalari askoren begirada errepikatzen da Victor Hugorekin: Goethe, Stendhal, Keats, Shelley; Berlioz, Wagner, Mendelssohn, Liszt; Lord Byron, Schopenhauer, Thomas Mann; Nietzsche, Oscar Wilde, Alexandre Dumas, Walter Scott... (*ibid.*: 16-28). Guztietan, sentiberatasuna lekuekin, jendearekin, ohiturekin, hizkuntzekin, herriekin. Beste Europa bat nahi zuten, askotarikoa, liberala (*ibid.*: 30). Literaturgile, artista, musikari eta pentsalari haiek guztiak *beste* Europa bat posible zela sinetsita zeuden, *beste* Europa hori bultzatzeko prest zeuden: horregatik erakusten dute burdinazko estatuetan sinesten dutenek erakusten ez duten sentiberatasuna.

Alemandarren metodotik ikasi

Baina Alemanian, nazio gutxituekiko hain sentiberatasun handia erakusten duen Alemania ilustratu eta erromantikokoan, Euskal Herriarentzat ispilu izan daitekeen eredu bat ere atzeman du Azurmendik. Oso urte gutxitan, ia ezerezetik hasita, puntako kultura bihurtuko zen kultura alemana -nazioa politikoki antolatu baino lehen ere-.

Ez zen batere erraza izan hasieran: XVIII.-XIX. mendeetako aleman kulturagileak hizkuntza garatugabe batean hasi dira idazten. Soziolinguistikoki, Goethek eta Schillerrek salatu dutenez, hizkuntza alemanaren inguruan erabatekoa zen utzikeria, gobernuaren eta klase gorenaren aldetik: gorteetan, nobleen artean eta etxe burgesetan frantsesa zen nagusi; hirietako teatroan, gizartean, irakaskuntzan eta biziera publiko ofizial guztian, frantsesa; Zientzia Akademietan, frantsesa edo latina: Leibnizek frantsesez idatzi du bere obra zientifiko eta filosofiko handia; hizkuntza barbarotzat hartzen da alemana (Azurmendi 2007c: 22 eta 202, 2007d: 27; 1999a: 74); eskoletan, zigortu egiten dituzte alemanez mintzo diren haurrak (Azurmendi 1999a: 74). *Arrazoimen hutsaren kritika* alemanez publikatu duenean nolana hiko kritikak jaso ditu Kantek, ez delako tutik ere ulertzen, Alemaniaren prestigioa atzerrian hobetzeko aukera paregabea galdu delako... (Azurmendi 1991: 9). Schiller zaharrak, jarraitzen du Azurmendik, zailtasunak ditu elkarrizketa bat alemanez osatzeko, frantsesera jo gabe; Kantek, aro prekritikoan, latinez argitaratu du hainbat idazki garrantzitsu eta, bere apunte pribatuetan, gai filosofiko eta teknikoekin, beti erabili du latina; Goethe idazle frantsesa izateko hasi da idazten; Humboldtkek bere anaiari frantsesez idazten dizkio gutunak, Parisen (Azurmendi 2007c: 23, 1991: 8).

Baina, poliki-poliki, eragozpen guztiak gailendu dituzte. Kontzientzia mailako arrazoiek bultzatzen dituzte eragozpenen aurrean ez etsitzera. Sendoetsi eta gogabete egiten dira, bestalde, beren ikerketetan lortzen dituzten emaitzekin: ulertzen dute

alemana ez dela frantsesa baino gutxiago, ez dagoela hizkuntza inzbilizaturik; izan ere, hizkuntza guztiek dute forma linguistiko oso-oso, gai baitira den-dena adierazteko (Azurmendi 1978b: 162-163).

Eta, ekinaren ekinez, lortu egin zuten kultura indartsu bat, behe-behetik eraikia. Ez zuten izan errege mezenasik, ez Paris, ez zuten izan goitik inolako erakunderen laguntzarik; idazle eta irakasle apal askoren lana izan zen, herriaren indarrak bakarrik eutsia; garai hartako intelektualaria eta unibertsitate-jendea jatorriz kalerri eta burgotar txikiak baino ez baitziren, eremu sozialean marjinaziotik gertu zegoen multzo probintziano hutsa: profesoreak, oso gaizki ordainduak, gose eta miseria gorrian bizi ziren; estudianteak, etorki apalekoak ekonomikoki; idazleak, judu errariak, tipo erdi zoro, erdi abenturazaleak (*ibid.*: 76, 1999a: 75). Frantzian eta Espainian diru laguntza publikoen bidez egiten badituzte hiztegiak, Alemanian herriak bultzatu du alemanezko hiztegia (Azurmendi 2007d: 77). Gureari buruz ere ari da, zeharka, Azurmendi.

Emaitzak ez ziren nolana hikoak izan; bi epe mugatzeraino iritsi ziren, bi modernitate, filosofiaren arloan ongi nabaritzen denez:

Lehengo ziklo horretan apenas egon da autore alemanik, eta dagoenak –Leibniz– frantsesez edo latinez idazten du ia beti: alemana oraindik ez da ‘kultur hizkuntza’ Europan. Bigarren zikloan, ostera, zeharo nagusituko dira pentsalari alemanak (apenas dago autore ez alemanik aro honetan), filosofiaren historietan bata besteari bultzaka iladan etorri ohi baitira haien izan erraldoiak: Kant, Fichte, Hegel, Schopenhauer, Feuerbach, Marx... (Azurmendi 1997: 21-22)

Literatura alemanaren ereduak

Azurmendik eredugarritzat jarri duen kultur indarketaren erakusgarrikerik ederrena izango da Alemaniako –alemanaren– pizkunde literarioa: Lessing, Goethe eta Schillerrek gailur literario gorenera jasoko dute hizkuntza erdeinatua (Azurmendi 2007c: 23). Mirari bat gertatu da Alemanian, pentsalariak eta literaturgileak bultzatu dutena, hain zuzen, laguntasun eta anaitasun giro batean, eztanda distiratsu bat Baltikotik Suitzaraino, alor guztietan fruitu harrigarriak lortuko dituen (*ibid.*: 22, 202). Helburu hori garbi zeukaten hasiera-hasieratik, Azurmendik Schlegelen hitz batzuetan jaso duenez:

Nazio garrantzitsu eta burujabe orok literatura bat izateko eskubidea du, hala hitz egin badaiteke, hau da, hizkuntza-kultura autonomo bat, hori gabe ezingo baitu inoiz eduki kultura espiritual propioa [...]. Gizaki aditu orok ahalegindu beharko luke [...] orokorki ezagutzen, baina ez azalazaleatik, bere aberriaren historia, hizkuntza eta literatura. (Schlegel, in *ibid.*: 301)

Ereduak ere izan dituzte: klasiko grekoak. Ez da haiena kopiatu nahi, ordea, haiek beren baitatik egin zutena egin nahi da, alemanaren baitatik Alemanian: ez dute greko bilakatu nahi, aleman nahi dute izan, iraun (*ibid.*: 61). Berekitasun nazionala baita arte ororen hasiera, Goetherentzat; areago, pertsonaia banako sortzailearen nortasunean herri-karakterea manifestatzen da Herderentzat (Azurmendi 2007d: 61).

Literaturaren esparrua ere aldatu egin da: herriaren oroimenean gorde diren balada zein ipuinak aztertzen eta ontzen dira, Grimm anaaien ereduak; literatura ez da jauregi

eta erresidentzia dotoreetan aurkitzen, aitzitik, herritar xumeen supazterretan: handizuek, goi mailek, ez dute hori bizi, ez sortu, ez gorde, herriak baizik, ezikasiaren ahoak, bizi duelako, egunero birsotzen duelako, beti berdin eta beti bestelako, beti berri, beti zahar, interpretatzen du Azurmendik (*ibid.*: 77).

Literatura baino lehenago, ordea, hizkuntza bera itzarri da, bere baitan gordeta zuen autokreatibitate guztia hedatu du, Azurmendik darabilen metafora bat ekarriz, udaberri oparo batean (Azurmendi 2007c: 22, 202). Humboldttek ongi asko dakienez –bere herriaren esperientzian atzeman baitu–, literaturak izugarritzko garrantzia du hizkuntzen eraldaketan eta osaketan: hizkuntzaren karakterea eta literatura, orokorki artea eta sorkuntza espirituala, elkarren ondoan garatzen dira (Azurmendi 1981: 173, 2007d: 29). Goethe ere hizkuntza literario bat sortu beharraz kezkatu da hasieratik: herri bakoitzak bere baitatik eta bere gisara sortu behar du literatura propioa (Azurmendi 2007d: 29). Azurmendik ere badaki; horregatik interesatu zaio beti euskal literatura, gerraurreko eta gerraostekoa, lehenik, gaur-gaurko literatura gaztea, orobat. Aztertu du Orixe. Aztertu du Mirande. Aztertu ditu Aresti, Salaberri, Erdozaintzi-Etxart, edo Gandiaga. Berriagoen artean, Sarrionandia. Azurmendik berak jakin du bere saiakeretatik estilo bat aurkitzen euskararentzat.

Azurmendi eta Goethe

Literatura alemanaren iraultza orokorraren barruan Azurmendik beste eredu bat jarri digu Goetherekin, ereduak jarri beharrez.

Leipzigen, Paris txiki batean jaioa, frantsesaren eraginpean eman du haurtzaroa: Unibertsitatean, kulturaren zein literaturaren gustu eta eleganzia frantsesa nagusitzen da eta, izan, berak ere idazle frantsesa izateko ametsa burutu nahiko du (Azurmendi 1999a: 63-64). Estrasburgora joan denean, ordea, zuzenbidea ikastera, hiri *frantses* horretan espiritu alemana eta arte alemana aurkitu ditu; Estrasburgoko katedraletan atzeman du, zehazki, zein den egiazko arte alemana (*ibid.*: 64, 67). Alsazia *frantsesean* kultura alemanean sakontzen du: herriz herri hasten da kantak eta ahozko literatura biltzen, festetan lekuko izaten (*ibid.*: 65-66). Erreakzionatu egingo du, bere lagunekin batera, frantsesaren nagusitasunaren aurka (*ibid.*: 64). Aurrerantzean, Alemaniako berpizkundearekin egingo du bat, besteak beste, *Sturm und Drang* mugimenduaren baitan esku hartuz: entusiasmaz hartzen du Rousseau; Voltaire, ordea, gaitzetsi egiten du (*ibid.*: 65-66).

Herderrengandik ikasi du Goethek herri bakoitzak bere hizkuntza, bere aiurria duela, historiaren esperientziaz sortzen duela bere artea: beraz, Alemaniak bere espirituari dagokion obra sortu beharko du, kreaio balizkorik izango badu, ez bada izango besteen imitazio margula (*ibid.*). Teatro alemana nahi du, alemana gaitetan eta alemana forman, eredu frantsesetik libre, bizitza eta natura alemanak islatuko dituen (*ibid.*: 68). Parodia hutsa iruditzen zaio tragedia frantsesa: tragedia grekoen gorentasunetik ikasi behar da, aitzitik (*ibid.*). Shakespeare ikusten du eredu eta ibilbide: Shakespearek errebelatu dio egiazko teatro alemanak nolakoa behar duen izan (*ibid.*: 67). Shakespeare eta arte gotikoa, hain zuzen, ilustratu frantses zaleek barbarotzat

zeukaten guztia goستن du Goethek (*ibid.*). Lessingek drama alemana berritu duenean, esaterako, ilustratuegia, razionalgia iruditu zaio (*ibid.*: 66).

Poesiaren indarra azpimarratzen du, bestalde: herrien bizitzan hain esperientzia bizia dena berreskuratu nahi du; forma poetiko kultistak utziz, hizkuntza arrunt eta beroa, esaera herrikoa hartu berriro, poesia nazionalaren oinarritzat (*ibid.*: 72).

Aleman literarioa sortuko du Goethek irizpide horiekin, bere gogora, filologoen axolarik gabe, bere anakronismo eta guzti (*ibid.*: 74). Ahozko hizkera jasoko du, hiztegiak sortu, gramatikak bultzatu: hizkuntza lantzea literatura lantzea dela ikusten du, eta alderantziz; hizkuntza landuz, literatura landuz, nazioa jasotzen dela badaki – Azurmendik berak ere ongi dakienez–, alemanaren herria beste nazioen parean jar daitekeela (*ibid.*: 81). Euskaldunok batuerarekin eta dialektoekin ditugun kezken antzekoak ditu (*ibid.*).¹ Itzulpenak bultzatzen ditu, hain arrakasta handiz, ezen alemana itzulpen gehien egiten duen hizkuntza bilakatuko baita urte batzuen buruan; itzulpenekin, bestalde, literatura arrotzen ikerketak ahalbidetuko dira (Azurmendi 1999a: 84-85).

Oso denbora laburrean, mundua Alemaniari begira jarri da: frantsesak beraiek alemanak imitatzen hasi dira (*ibid.*: 93). Literatura unibertsalaren kontzeptua proposatzeko prest dago Goethe: literatura unibertsala literatura nazionaletatik sortzen da, kalitatezko literatura lokaletatik sortzen da; literatura unibertsala literatura nazional unibertsala besterik ezin da izan (*ibid.*: 63, 96, 99). Goethek esperientzia konkretua, bizitza-exijentzia du beti gogoan, abstraktuari ihes egin nahi dio beti (*ibid.*: 95). Goethe unibertsalista txit energikoki alemana da, ondorioztatzen du Azurmendik, guztiz nazionala (*ibid.*: 68). Unibertsala eta lokala, unibertsala eta nazionala guztiz uztarturik, kontraesanik gabe.

Euskal pizkundeak

Euskal Herrian ere, ernalduko dira, poliki-poliki, berpizkunde mugimendu ezberdinak. Bigarren modernitatearen ebakian, Ilustrazio erromantikoak eskatzen zuen giza aberearen ulerkuntza antropologiko eta historiko konkretua. Kanten arrazoimenean agertzen den sentiberatasun konkretua. Gerraurreko pizkundeetan, lehendabizi. Garen gutxia onarturik, garen lakatz eta landugabeak onarturik, garena apainduz eta bizigarrirituz hasi ziren lehen belaunaldi ezberdinak, goratuz eta eroriz, baina, beti ere, galdu gabe zutitzeko indarra (Azurmendi 2009: 186). Eta ernaltzen, orobat, gerraosteko euskal kulturgintzan zein literaturan.

Helburuetan, nazio konkretu bat, ohitura, hizkuntza, lekuan lekuko ekonomia eta abarrekin. Bultzagileetan, herri xehea, jauregi distiratsurik gabe, bere biziera espontaneoarekin, bere kantu, erritmo, dantza, ipuin, poesia, mitologia, jakinduria familiar eta abarrekin.

Herriaren barrutik sortuko baita lehen belaunaldi apal-apal bat: Arrese Beitia, Bilintx..., elite selektoek baztertuak, ez hiribururik, ez gortetik, ez ideia berri-berririk, ez burgesiarik, ez aureola sozialik... (*ibid.*: 394), ia Alemanian bezala. Eta Lizardi, gero, bigarren uhin batean. Lauaxeta, Aitzol.... Eta Orixe. Eta Arruti. Lanarekin lotutako

jendea, berriro, jende apala, jende xehea, herri pobrea, ustiatua, baserritarrak, nekazariak, artzainak, olagizonak, haurrak, agureak, hildako gurasoak...; lanak, ohiturak, uste eta espiritua (*ibid.*: 74, 2007d: 301). Euskara kultistaren joera nagusitu zenean, jende xehearen euskara miretsiko du Orixek (Azurmendi 1986: 131). Herri-bertsolaritzaren aurkikuntza ere, *bertsolaritzaren iraultza* deitu zena, etorri zen Lekuonaren eskutik (*ibid.*: 127, 134-135). Azurmendik berak behin baino gehiagotan eskatu du estatus literarioa bertsolaritzarentzat (Azurmendi 1981: 413).

Eta, geroago, beste pizkunde bat gerraostean, Mirande, Aresti, Gandiaga, eta beste hainbeste: Rikardo Arregi, Telesforo Monzon, Federiko Krutwig, Txillardeggi, Xabier Lete eta Lourdes Iriondo, Mikel Lasa, Xalbador Garmendia... Horiakin, euskal gizartea iratzartzen ari zelako lehen sintomak atzematen ditu Azurmendik:

Euskal gizartea eginkizun baten aurrean aurkitzen dela, iratzartu dela, eginkizun baten kontzientzia sutsua duela. Gizarte osoaren kontzientzia-batasun gehiago dagoela. Eta artista ere oso-osorik kontzientzia horren barruan dagoela, haren parte aktibo bezala. (Azurmendi 1978a: 10)

Gerraosteko belaunaldi horrek, 50eko urteetatik aurrera, kultur mailara jaso du euskara, azpiegitura oso bat antolatu du, arlo guztietan (Azurmendi 1981: 419, 435); hasiera batean erakundeen laguntzarik gabe (*ibid.*: 436).

Izan ere, altxamendu frankistaren oldarraren aurrean gerra galdu zuen belaunaldiak oso ongi jakin zuen iragartzen zein gerra zen galdu ezin zuena: kulturaren gerra.

Perspektiba bat hartuta, izugarri dinamikoa agertzen da kulturagintza urterik ilunenen hasieratik bertatik. Pako Sudupek egin du, agian, garai osoaren emaitzen azterketarik osoena, 1970. urtea baino lehenagoko obrak bilduz (Sudupe 2011, 2012).²

Helduentzako literatura idatzi zutenak: T. Monzon, S. Mitxelena, J. Etxaide, Iratzeder, Txillardeggi, E. Erkiaga, J. A. Loidi, M. Ugalde, J. Etxepare, J. Mirande, G. Aresti, B. Gandiaga, X. Lete, J. Artze edo R. Saizarbitoria. 30 titulu zenbatu ditugu guztira, atal horretan.

Antzerkigintzan: P. Larzabal, A. M. Labaien eta A. Zubikarai. Hamabost titulu. Beste autore batzuk ere aipatzen dira, halere: P. Bordazarre, J. Etxaide, T. Monzon, P. Guilsou, M. Elizagarai, T. Alzaga, A. Barriola, G. Egaña, N. Etxaniz, S. Mitxelena.

Bat baino gehiago izan ziren kontagintza landu zutenak. Herri literatura idatzi zen (J. M. Satrustegi, Pierre Duny-Pétré, P. Narbaitz), haur eta gazteentzako ipuinak (J. Etxepare, A. Sorarrain, J. M. Satrustegi, M. Minaberri), helduentzako ipuinak (J. Mirande, J. Etxepare, Tx. Peillen, G. Aresti, Txillardeggi, P. Etxeberria, A. Arozena) eta gazteentzako literatura (J. A. Loidi, Anabitarte).

Saiakeran ere egon zen ekarpenik: T. Monzon, S. Mitxelena edo Txillardeggi. Sei titulu.

Azkenik, itzulpengintza ere jorratu zen. Itzulitako autoreak aipatuko ditugu: J. Stevenson, J. R. Jiménez, M. Legasse, H. Wast, B. Araluz, P. Baroja eta J. L. Muñozerro. Lan laburragoak ugariak izan ziren aldizkari ezberdinetan. Itzulitakoak: Poe, Kafka, O'Neill, Manciet, Baroja, Saroyan, Lagerlof, Stern, Kanpion, Petronio, Sienkiewicz, De Maistre, Wilde, Collodi, Txekhov, Mérimée, Daudet, Munro, Twain, Marshall edo Zunzunegui. Itzultzaileak, berriz: Mirande, Zaitegi, Insausti, Mokoroa, Sorarrain,

Iturriotz, Arrutza, Larrañaga, Etxaniz, Oiartzabal, Zinkunegi, Juaristi, Mujika, Elizalde, Etxaniz, Txillardegi, Ayalde, Lekuona, Dunixi edo Loidi.

Erljio liburu batzuk ere itzuli ziren: hamahiru titulu.

Joxemiel Barandiaran

Euskal kulturaren alde egin zuten askoren artean, argi bereziz distirutzen da Joxemiel Barandiaran. Beste erraldoi bat. Askok ukatu duten kultura bat egiaztatuko du, berak etxetik bertatik ongi ezagutzen duena. Dagoena eta izaera konkretua duena atera nahi du argitara. Erakutsi. Aho gaizto bat baino gehiago itxi, seguru aski.

Euskal kulturaren datutegi erraldoi bat sortuko du Barandiaranek. Erregistro zehatz bat, Azkueren bideari jarraiki. Bizitza osoa hartuko dion lan nekaezin bati lotuko zaio. Euskal mitologia. Mari edo mendietako jeinuaren erreinua. Marirekin harremanean dauden leize-zulo mitologikoen zerrenda konkretua. Lurrak, sinesmenak eta mitoak. Mendiak eta basoak. Mitologiaren toponimia. Monumentu megalitikoak. Litokultura: haitzak, harriak, aztarnak... Ipuinak eta legendak. Herensuge. Basajaun. Jeinuak, laminak, sorginak, belargileak. Elizen inguruko mitologia. Leize-zuloetako ermitak. Ohiturak. Olentzero:

Olentzaro urtegarai bat da. Au zan noski bere lenengo esan-naia. Bañan erri batzuetan gizajantzi bat eman diote eta giza-iduriko izakitzat daukate. Gauon gauez agertzen omen da. Begi-gorri, odolartuak dituela, diote Zarautz'en. Aurpegi illun, ikatzez beztua, Elduain'en [...]. Ikazkiña dala, Oyartzun'en. Ote-sorta bizkarrean eta igitaia eskuan, bildurgarri agertzen dala esaten dute Berastegi'n. Andrea ere ba-duela, diote Oyartzun'en. (Barandiaran 1973: 470-471)

Ekonomia. Baseria. Artzaintza. Gizarte egitura. Sistema politikoa. Hileta-erritualak. Artea. Literatura.

Bildutako datu horiekin guztiekin, kultura baten mapa egin nahi du, egiten ari da. Hori baitu helburu:

Describir el estado cultural de un pueblo es reseñar y explicar su saber y sus creencias, sus costumbres, lenguaje, escritura, leyes, artes, técnicas, estilos y modas; es dar a conocer aquellos modos de pensar, de sentir y de obrar que se presentan como independientes y extraños al individuo, los cuales pueden ser comprendidos bajo el nombre general de *formas sociales*. (Ibid.: 123)

Oso gertu dauka Durkheim. Oso gertu antropologiak eta soziologiak eman duen kulturaren ohiko definizioa.

Kultura batek herri izaera bat suposatzen du. Munduan egoteko molde zehatz eta jakina. Badaki hori Barandiaranek. Eta munduan egoteko molde asko dagoela. Kultura bakoitzak du berea. Berezia. Alderaezina. Soziologia alemana ari da gertutik jarraitzen. Kultura ezberdinez, alegia, herri ezberdinez osatutako mundu bat ikusten du. Babelgo dorreak suposatu bide zuen zigorra ukatuz, egitasmo jainkotiar bat da harentzat munduaren aniztasuna:

Un, pueblo, con sus hechos y tendencias deferenciales, y por consiguiente, la abigarrada multiplicidad de pueblos, grupos naturales o naciones, responde a un plan divino. (Barandiaran 1974: 96)

Herri batek bere kultura eta izaera gordetzeko eta defendatzeko (*sic*) eskubidea dauka. Zuzenbide naturalarekin adostuko du eskubide hori:

La obligación que tiene cada pueblo de amar y defender su lengua se funda en la necesidad de conservar su propio ser como pueblo. Obligación de derecho natural. (*Ibid.*)

Oso irmoa begitantzen da baieztapen hori, frankismoaren garaiak zirela aintzat hartuta. Garrasi baten antza du. Eta, jakina, kultura batek bere baitan gordetzen duen lehen altxorra hizkuntza da:

La lengua materna, como instrumento naturalmente ligado con la totalidad de la vida de un pueblo, es el único medio capaz de provocar en las almas con regularidad y eficacia resonancias espirituales las más variadas. Por eso su fuerza formativa es insuperable. Más que como producto del espíritu humano hay que considerar la lengua como punto de partida de donde surge la vida del individuo y del pueblo y por cuya fuerza creativa éstos se forman. (*Ibid.*: 97)

Gurean, gutxituta dago hizkuntza. Ahultzen ari zaio hezkuntza gaitasuna. Ataunen bertan, nabaria da galera, urte gutxitan, belaunaldi bakar batean:

La lengua castellana no la conocían en Ataun hace cuarenta años más que los curas y algunas personas ricas. (Barandiaran 1973: 160)

Aberatsak eta Eliza. Herri xehea euskaldun hutsa da artean:

El vascuence es allí una forma social que se impone todavía a todas las personas mayores del pueblo. (*Ibid.*)

Gauzak aldatzen hasi dira, halere:

Sin embargo, las amplias relaciones que actualmente ligan a los jóvenes con elementos de habla castellana en las escuelas, en los cuarteles, en los talleres y fábricas, en las grandes urbes a donde van a servir, etc... (*Ibid.*: 161)

Euskararen izaera atzerakorrak ez dauka etenik, antza. Eremu zabalak galdu ditu aspaldiko mendeetan euskarak. Ongi asko agertzen da Arabaren kasuan, adibidez. XVIII. mendearen amaieran bizirik zegoena galdu da:

Se ve, pues, que en la época en que se escribió la nota precedente, se hablaba el *euskera* en gran parte de los pueblos de Álava. En los próximos alrededor de Vitoria no se había perdido todavía la lengua de nuestros padres. (*Ibid.*: 364)

Bildu dituen datuak ere interpretatuko ditu, noski. Eta interpretazio horien ardatzean, neolitikotik aurrera aldaezin iraun duen kultura bat. Berta-bertakoa.

Autonomoa. Gaur egungo Euskal Herria antzinako herri baten ondorengo historikoa da, bete-betean:

Desde aquellos remotos tiempos, el país habitado actualmente por el pueblo vasco aparece como centro de una zona de Europa occidental –zona llamada franco-cantábrica– donde se desarrolla una cultura autónoma que se distingue fácilmente de las culturas de los pueblos que la rodean. Y esa autonomía cultural se ha perpetuado en la misma región, a través de las edades y a pesar de los naturales cambios en su contenido y en su área de difusión, hasta los tiempos propiamente históricos en que aparece encarnada en los llamados vascones y en otros grupos vecinos con ellos emparentados. (Barandiaran 1995: 23-24)

Oso gertu dauka Barandiaranek Alemaniako akademia, Azurmendirengana itzultzearen. Oso gertu dauka Renan akademikoa. Oso urrun Renan politikoa, estatu-gizona, *Zer da nazioa?* tratatua idatzi zuenean.

Ez da askorik aipatzen Barandiaran esku artean erabili ditugun testuetan, baina uste dut, oraintxe bertan, Euskal Herriaren jatorriaz eztabaida pizten denean bezala, ikertzaile eta pentsalari guztien gogoan ibili dela. Espiritu elikagarri bat izan balitz bezala.

Kultura jaso bat

Sortzen ez ezik, euskal kulturgilea bere praktika problematizatzen hasi da. Kulturaren izaerari buruz teorizatzen, berez, modu naturalean. Kultura pentsatuko dute. Hizkuntza pentsatuko dute. Historia pentsatuko dute. Nazioa, azken batean. Proiektu bat eraikiko dute euskal kulturarentzat. Nolako kultura nahi duten. Nahi duten kultura horrek zein harreman daukan gerraurretik ezagutu duten kulturarekin. Eta abar.

Adostasun orokor batzuetara iritsiko dira berehala. Ia kulturgile guztiek partekatuko dute ikuspegi bat. Ezer baino lehenago, kultura jaso bat eraiki beharra jarriko dute xede nagusitzat. Aho batez. Folklorearekin eta tradizioarekin lotuta egon den aurreko belaunaldiaren ulerkuntza mugatua gainezkatu nahi dute. Europako eta munduko kultura gorenaren parera igo euskal kultura berria. Miranderengan ezin argiagoa da asmoa:

Nik maite dut neure herria Angles edo Frantses batek berea maite duen bezala. Euskal-herri'ko dantza ta abesti herkoiak laket zaizkit naski; eusko edestia ikasten ari naiz; bainan geroari beha bizi behar ginukela deritzait. Nere ametxa, hauxe da: egun batez, Euzkadi izan dadien ludiko herrialde argituenetarik bat –Iphar-Europa'ko erresuma ttipi zenbait diren bezala (gogoan ditut Holanda, Dinamarka, Finlandia...). (Mirande, in Peillen 1989: 448)

Zerbait gehiago nahi du geroari begira, beraz, dantza eta abesti herrikoi ederrez harago. Horiek gutxietsi gabe. Baina, horietan soilik geratu gabe. Aurreko belaunaldiaren proiektu kulturala kritikatzan du, bidenabar. Beste nazio batzuek kultura goratzeko hartu duten bidea nahi du errepikatu, bultzatu:

Nahikoa da eta aski begien irikitzea, ikasteko nola gurea bezain apala den egoeran bizi ondoren, azken ehun urteotan herri batzuek beren etnia-nortasunaren errespetua irabazi duten, izan dadin

politika jabetasunarekin edo gabe, beren ohiko dantza eta kanten alde lan egiteaz oso bestelako bideetatik, hola nola Fintar, Flamandar, Galestar. (Mirande, in Larrea 1985: 83)

Bestelako bide hori goi mailako kultura lantzea da. Euskaraz lantzea, jakina. Eta garai hartako euskal *intelligentsia* ez du ikusten bide estrategiko horretan, ez baitu euskara erabiltzen gai gorenak jorratzen dituenen. Ondorioz, gai arruntekin lotuko da euskara, ezinbestean. Bigarren mailako etxeko hizkuntza bihurtuko da:

Euskara gutitan aintzat hartu dute gure jakintsu eta eskolatuek, horregatik gure herri xeheak ere euskara gai arruntenak erabiltzeko baizik ez dela uste du. Gure olerkariak gainera, guti batzuk kenduz, gai arruntenak besterik ez dituzte erabili beren poemetan.

Lurbira zabaleko eta jakintza maila orotako gai den errankizunik ez dute inoiz ere poemak ernarazteko erabili. Eta honek kalte handia sortu dio gure aberri hizkuntzari. (Mirande 1981: 37)

* * *

Bat dator Krutwig, Folklore, edo herri kultura, eta kultura jaso bereizi behar dira. Inguruabar historiko berean maiseatuko ditu belaunaldi zaharraren planteamenduak:

No confundamos el folklore, por muy simpático que sea, con la cultura. Lo que se llama cultura popular *no* es cultura en el sentido que normalmente se debe emplear esta palabra, sino folklore. (Krutwig 1979: XXXI)

Euskal kultura jaso eraiki beharra berretsiko du Miranderekin batera. Euskal kultura jaso bat garatuz integratu behar du Euskal Herriak Europako kultura handiaren magalean. Ahalegin horretan jarriko du askatasunaren burutzapena bera:

El fin de este libro es claro... se trata de decirle al Pueblo Vasco: tienes derecho a ser libre. Necesitas ser libre, pero tienes que ser libre para algo... Y ese algo es justamente enriquecer la cultura europea y enriquecerte en ella, puesto que no puede haber un porvenir más glorioso para un pueblo que ser el hogar de un renacimiento cultural. (*Ibid.*: III)

Euskal Herriari askatasun nazionala ez ezik, buruaren jabetza ekarriko dio herritarrari kultura jasoak:

La libertad de Vasconia ha de servirle al pueblo vascón para que sus hombres y sus mujeres sean libres no sólo de la opresión sino también de la opresión espiritual. (*Ibid.*: 72)

Horregatik, hain zuzen, kulturarekin lotuko du Krutwigek Euskal Herrian antolatzen ari den askapen mugimendu politikoa:

En este sentido entiendo que la lucha vasca de liberación nacional debe tener justamente por fin el de lucha cultural, el renacimiento cultural del pueblo vasco. (*Ibid.*: XII)

Goi mailako kultura jaso hori eraikitze aldera egin zuen Krutwigek greko klasikoaren ekarria erabiltzeko proposamena, gauza jakina denez. Ezaguna da, halaber, euskararen eta grekoaren arteko harremani buruz garatu zuen teoria, arrakasta handirik lortu ez zuen arren, bizitza osoan zehar defendatuko zuena:

Existían en muchas partes de Europa occidental, no sólo nombres geográficos que coincidían con los vascos, sino también elementos lexicales, y que justamente en la lengua griega se hallaban una serie de coincidencias, no ya sólo lexicales, sino de elementos gramaticales, que mostraban un parentesco entre el vasco y el griego, especialmente entre el vasco y la *couche* preindoeuropea que fue incorporada en la lengua griega después de la invasión de los dorios, y por cuya amalgama se dio la lengua griega. (*Ibid.*: IX)

Euskal Estatua eraikiko denean, kulturaren sustapenean egin beharko ditu ahaleginik handienak:

El Estado Vasco destinará gran parte de sus egresos a la Instrucción Pública. La tarea del futuro estado vascón será no solamente fomentar el bienestar material de la nación vasca sino fomentar igualmente la cultura de los ciudadanos. (*Ibid.*: 61)

Hezkuntza Plana garatua dauka Krutwigek: Unibertsitateak, Eskola Politeknikoak, Ikerketa Institutuak nekazaritzan, industrian eta zientzian, Ikasketa Klasikoak, Ikasketa musikala... (*ibid.*: 61-63).

* * *

Arestiren goiburu berbera da. Folkloreaz harago altxatu behar den kultura jasoaren kezka:

Gure zazpi poesi-liburu zazpi erdera diferentetara itzultzen ez diren bitartean, gure teatro-mutilak euskal antzerki bat New-York, Londres eta Mosku'ra ematera deituak ez diren bitartean, gure abesti modernoa Europako dizka best-seller bat ez den bitartean, Nobel sari bat irabazten ez dugun bitartean, [...] inork ez du aurrerantzean txisturik joko, inork ez du aurrerantzean ezpata-dantzarik dantzatuko, inork ez du irrintzinarik botako, inork ez du zortzikorikan kantatuko. (Aresti 1986: 200)

Mirandek bezalaxe eskatzen du Euskal Herria kulturalki gorena, munduko herri kultuen artean leku bat izan dezan:

Eta Euskal Herria edukatu behar dugu, munduko herrien artean merezi duen lekua okupa dezala deseo badugu. (*Ibid.*: 60)

Kultura jaso hori sortzeko Euskal Herriak dauzkan baliabideak gutxi dira tamalez. Eskola sistema antolatu behar da lehenbailehen:

Gainerako ate guztiak itxita daude, eskola, radioa, telebista, egunkaria, zinema. Batez ere aurrena, eskola, herri baten bizitzarako gauzarik premiazkoena, nazioen harnasa, erresumetako kulturaren bihotza. Lastima ematen dio euskal arimari gure haur euskaldunak eskolara joaten ikusteak, bertan nola hainbeste mila urtetan moldaturiko kultura galtzen duten [...]. Euskaldunak bagera, hutsune hori lehen-baitlehen betetzen alegindu behar gara. (*Ibid.*: 60-61)

Baliabiderik ez badago, sortu behar dira. Eta, bien bitartean, lana eskatzen zaio kulturagileari. Buru-belarri engaiatuko zaio Aresti euskal kultura goratzeko eta berritzeko lanari. Sukar baten menpean dirudi. Poesiarekin lortu zuena ezaguna da: *Lehen poemak* (1954-1959), *Bizkaitarrak* (1959), *Maldan beheara* (1959), *Zuzenbide debekatua* (1960-1961), *Harri eta Herri* (1964), *Euskal Harria* (1967), *Harrizko Herri hau* (1970), *Azken Harria* (1976). Nobela bat ere idatzi zuen, *Mundu munduan* (1965). Antzerki-lanak: *Mugaldeko herrian eginikako tobera* (1961), *Etxe aberatseko seme galdua eta Maria Madalenaren seme santua* (1963), *...eta gure heriotzeko orduan* (1964), *Justizia txistulari* (1967), *Beste mundukoak eta zoro bat* (1969).

Kezka berezia agertu zuen Arestik antzerkigintzarekin. Bazekien ahalmen hezitzailea eta eraldatzailea daukana. Jolas hezitzaile bat dela, Brecht handiari hartuko dionez. Berritu nahi zuen. Eredu zaharrak gailendu, Alzaga eta Soroa:

Eta gertatzen da gaurko euskal teatroa ezteela gaurkoa, joan den mendekoa baizik. Horretarako bildu gara hemen, zahartasun zipriztin hori gure artetik behin eta betirako aldaritzeko. (Aresti 1976: 29)

Maila goreneko antzerkia sortu. Ohiko antzerki tradizional herrikoa defendatzen dutenen eskema hautsi:

Hori da gure lehen akatsa. Bigarrena hau da. Askotan esan da: Teatro txikia, baina gurea. Zergatik sartuko gara txikitasun zeken batean, gauza haundiak egiteko kapaz garenean? (*Ibid.*: 30)

Antzerkiarekin gauza handiak egiteko, munduko teatro jaso ikertu behar da:

Beraz, munduko teatroa estudiatu behar dugu, bertan zer ongi dagoen ikasi, eta bide horretatik perma eta abia. Jakin behar dugu nor den Ugo Betti, nor den Pirandello, nor den Williams Miller, Brecht, Becket eta Ionesco. Eta maisu hoetatik lezioak hartu. Metodoak eta teatroa egiteko bideak eta moduak asko aldatu dira azken urte hauetan. Modu berri hoek ikasi behar ditugu, eta gure teatroan aplikatu. (*Ibid.*)

Euskal teatro txikia handitu, hobetu, dotoretu, berritu nahi du, hitz batean:

Gaurko euskal teatroarekin ezpaikaude konforme, gure teatro txikia haundiagotu, hobetu, dotoretu eta berriztatu ahal eta behar dugulako. (*Ibid.*: 58)

Eta, asmo nagusia ahantzi gabe, euskal antzerkia berrituz, euskal kultura berritu. Ez da nekatuko Aresti aldarrikapen horrekin:

Gaurko problemak atera behar ditugu, jenteak, euskaldun jenteak pentsa dezan, gelditasun estatiko batean ezta din para. Teatroarekin bete ditzakegu euskal kulturaren dauden hutsune asko. Euskal kultura parti dezakegu euskaldunen artean libertsioarekin batera. Euskal kultura eta munduko

kultura berriak, bizitza molde berriak, pentsaera eta portaera berriak. Euskal kultura berriztu behar dugu, eta biderik egokiena, erraxena eta politena teatroa da. (*Ibid.*: 30)

Teatro jasoaren bidez, kultura jasoaren bidez, etorkizuna irabazi:

Altzaga eta Soroa guztiak alde batera utzirik. Hoek ongi daude historiarako, baina ezta dukagu zertan historian bizi. Herri hilak historian bizi dira, herri biziak etorkizunean, esperantzan, molde berrietan, mugimentuan. (*Ibid.*: 30-31)

Ereduak badauzka. Badaki euskal antzerki berriak nondik behar duen ikasi: Ibsen, Eugene O'Neill, Ugo Betti... Eta, bereziki, Bertolt Brecht:

Teatro berri bat hasten du Brechtek, bere *Lehr-stücke* (ikasketa jolasa), kultura irakasteko antzerkiak. (*Ibid.*: 64)

Mugak hausteko, munduak irekitzeko daukan gaitasunagatik miresten du Brecht Arestik:

Brechten teatroan antzertitik kanpoko gauza asko sartu dira; musika eta dantzaz gainera, baita filosofia berri bat, ekonomia-gaiak, etnografia, pintura eta eskultura ere, guzti hoiek gorputz bat formatzen dute, ozidenteko gizarte batean posible eztena. (*Ibid.*)

Horrez gain, erakundetu egin behar da antzerkigintza. Sinergiak bildu, gaur egun esango dugunez:

Baina hau guzti hau egiteko, teatroa montatu behar da, organizazio bat, eskribatzale eta teatroko beste jentearen arteko organizazio eder bat. (*Ibid.*: 30)

Eredua ere badauka, berriro ere, antzerki globaletik hartua:

Frantzian badago halako elkartade bat, La Comédie Française. (*Ibid.*: 65)

Poesia eta antzerkia idatzi ez ezik, beste arlo askotan ibiliko da. Itzulpen lanak egingo ditu: Tomas Meaberen *14 alegia* (1968), F. Marcos da Portelaren *Nekazarien dotrina* (1969), Nazim Hikmeten *Lau gartzelak* (1971), T. S. Elioten *Lau Quartetto* (1973), Boccaccioren *Boccaccioren Dekamerone ttipi bat* (1979). Jon Juaristik Valle-Inclánen *Hitz jainkotarrak* eta Curros Enríquezen *Jostirudi jainkotarra* ere aurkitu zituen eskuizkribuen artean (Juaristi 1983: 7).

Hiztegiak osatuko ditu, bestalde, *Batasunaren kutxa* (1970), *Hiztegi ttipia* izenekoaren hasiera (1973). Hiztegi entziklopediko bat nahi du, euskaratik euskarara, munduko hizkuntza guztiek daukatena bezalako:

Un Diccionario Enciclopédico [...]. Pero en todas las lenguas cultas existen tales diccionarios, y no le deben cerrar tales posibilidades al idioma vasco. (Aresti 1986: 178)

Euskaratik euskarara zergatik izan behar duen ere argudiatu du:

Que las explicaciones de los términos vayan dadas en euskara, [...] dar las explicaciones en castellano o en francés, [...] incrementando el sentimiento de inferioridad que los vascos sentimos por nuestra lengua. (*Ibid.*)

Bere gain hartuko du Arestik, Txillardegik egin zuen bezala, Euskaltzaindiak – ikuspegi estrategikorik gabe– egin nahi ez duen lana:

Lo lógico, lo natural, lo obligado, es que tal Diccionario normativo hubiera sido redactado por la Academia Vasca, Euskaltzaindia, [...] si la Academia no ha llevado la redacción de un tal Diccionario, y si entre sus proyectos más o menos inmediatos como parece, no figura, es porque encuentra dificultades superiores al deseo o la voluntad humana. (*Ibid.*: 178-179)

Bere euskaldun berri izaerari oso lotua, euskara ikasteko metodo bat nahi du sortu:

Quiero publicar mi método *El euskara y yo*, por el que estoy enseñando euskara a mis dos hijas mayores. (*Ibid.*: 180)

Argitaratzaile lana ere egin zuen, bestalde. Lur argitaletxea sortuko du, arrakasta handiz, eskutitz batean Txillardegiri adierazi dionez:

Lurrekin aurrera gihoazak. Errezki esan liteke egiazko boom bat izan garela. Momentu honetan 800 harpidedunekin giaudek. Hire liburua agortuta, zeharo agortuta diagok. [...] Rikardoren liburua [...] Durangoko feriara eraman diagu. [...] *bi egunean* agortu duk. Ez al da miragarritzko record bat? (*Ibid.*: 163)

Miranderen lan zentsuratuak ere Arestik argitaratuko ditu. Diskoak argitaratzen ere hasiko dira aurki:

Gu dizkotan ere sartuko gaituk. Konpromiso batera etorri gaituk zenbait abeslarirekin; [...] euskal kausari traidoreak garen ezker, prezio erdian salduko zitiagu 60 pezeta garestien. Egiazko erreboluzio kultural batean giaudek. (*Ibid.*)

* * *

Oteiza ekarriko dugu hurrena. Euskararen sorkuntzaren unibertsoa partekatu ez zuen arren, euskaraz ez egin arren, eragin handia izan zuelako euskal kulturaren. Poema luze bat eskaini zion Arestik, hain zuzen, *Harri eta Herri* liburuan. *Profeta bati* deitzen da, eta, artean, aurrez aurre ezagutzen ez badu ere, ezagutzen duela aitortzen dio, hamaikatsu aldiz ikusi dituelako eskultorearen harriak bazter batean botata, Arantzazun (Aresti 1964 [1979]: 106). Euskal kulturgilearen metafora bipila da bazterkeriarena. Horra gizonaren profetikotasuna:

Antigoalean/ profetak/ harrika/ hiltzen zituzten./ Gaur egunean/ arbuioz,/ desamodioz/ eta desprezioz. (*Ibid.*: 132)

Euskal kulturak jasan dituen mespretxuak salatuz hasi du Oteizak *Quousque tandem...!* liburu enblematikoa, ikusi dugunez. Eta, hain zuzen, mespretxu horren aurka frogatu nahi izango du euskal kultura zaharra uste baino azkarragoa izan zela. Neolitikoan osatu baitzen euskal estilo artistikoa. Neolitikoan, ahozkotasan sakonaren bidez gure artera iritsi zaigun kultura:

En la tradición vasca hay un estilo que es, porque procede de un arte que se ha logrado concluir ya en el neolítico. El vasco es un estilo, todo lo que hace responde a un mismo y personal estilo. (Oteiza 1971: 8)

Hemen jaio gara, euskaraz. Protoeuskararen esparruan. Altamira, Lascaux eta Trois-Frères-en artean:

Nuestra cumbre artística de Lascaux... hace 14 mil años. El primer rumor cultural de hombre en el mundo suena en vasco, nacemos en vasco aquí mismo. (Oteiza 1983: 332)

Eta jarraituko du, bertsolari bat bezala, barrutik sortzen zaion bulkada estetiko baten gainean zelatuta:

3 puntos: Trois-Frères, Altamira y Lascaux. Son las 3 grandes fábricas de energía espiritual que viene funcionando al mismo tiempo como estaciones últimas del paleolítico. (*Ibid.*: 333)

Hori da gure herri txikia, Europan lehena, Europan handiena:

Este es nuestro pequeño país original, el primero en Europa que produce hombre. (*Ibid.*: 336)

Neolitikoan osatu zen estilo hura da gaur eguneko euskaldunak oinordetzan jaso duena, eta, antzinakoa izan arren, berri-berria ere badena, bat egiten baitu arte modernoaren oinarriekin:

Trato con este trabajo de mostrar la correspondencia de un nuevo tipo de sensibilidad que está hoy dando a luz el arte contemporáneo, con el viejo estilo para el arte y para la vida que el pueblo vasco tradicionalmente viene heredando y perdiendo. (Oteiza 1971: 4)

Hori Oteiza da. Eta gehiago. Gustatuko zaigu, ala ez. Hemen estetaren asmoa da garrantzitsuena. Garrantzitsuena arte berri bat sortzea da. Munduan distira egingo duena. Euskaltasuna mapan jarriko duena. Artistak jarri behar dira lanean, politizatu, bultzagile bilakatu, herriaren irrikaren aitzindaritzan:

El artista adelantado en el espíritu del arte actual [...] vuelve al lugar político de su antiguo destino, de su misión en comunicación, en comunión con su pueblo. (Oteiza 1983: 18)

Ariketa-etxeak behar dira, abiadura hartzeko:

Con unas cuantas Casas de Ejercicios en nuestro país sería suficiente para ponernos en marcha. (*Ibid.*: 127)

Kultur fabrikak:

Una fábrica-escuela (instituto o laboratorios) donde poder trabajar juntos nuestros valores individuales en las artes contemporáneas y en nuestra tradición popular con todos los especialistas en nuestra cultura, para la experimentación de las formas más nuevas y rápidas de educación y fortalecimiento espiritual de nuestro pueblo, la más propicia de toda nuestra historia para nuestra reintegración activa en la cultura. (*Ibid.*: 26)

Oteiza bera da adibidea. Oteizaren eskultura. Eta Txillidarena. Eta Mendibururena. Eta Basterretxearena.

Eskulturak lortu du. Eta eskulturak lortu duena orokortu behar da euskal kulturaren. Antzerkigintzan. Literaturan. Zineman. Dantzan. Musikan.

Necesitamos arte popular nuevo, bertsolari nuevo con poeta nuevo, con música nueva, con teatro nuevo... (*Ibid.*: 24)

Diziplina berritzaileak behar ziren. Poesia nahasi, Bretchek egiten zuen bezala, musikarekin, margolaritzarekin, dantzarekin:

Una nueva poesía oral. El poeta trata de experimentar entrando en equipos de trabajo con el músico, con el pintor, con los demás artistas que se supone ya hemos obtenido resultados en nuestro lenguaje particular. Se trata del montaje visual del recitado poético, en integración pública, abierta, espontánea y directa, de plástica, teatro, ballet y música. (*Ibid.*: 33)

Oso begirada laburrekoak gara, batzuetan. Bertatik bertara jarraitzen ditugu gertakariak. Sustraien arrastoa galduta. Gure mundu modernoa geure baitatik sortzen dugula uste izateko joera daukagu, batzuetan. Diziplina berritzaileak:

Teatro de bersolaris, bersolari-jazz, txistulari-jazz, el jazz oral, el jazz vasco (a partir del antecedente jazz de nuestra txalaparta), la música-teatro, música y poesía visuales, canción y coros abiertos, la novela audio-visual, el ballet oral y una gimnasia-ballet vasca como primer contacto de nuestros niños con el mecanismo íntimo de su sensibilidad vasca... (*Ibid.*)

Poeta berri batzuk hasiak dira, euskaraz. Aresti, Lasa, Azurmendi, Otsalar:

Esta generación abre para el euskera la puerta de las lenguas poéticas del mundo actual porque ha abierto la puerta del euskera a la realidad viva, a la energía estética original que se nos había enterrado con el alma de nuestro pueblo [...] Se convierte para nosotros en el comienzo verdadero y popular de un Renacimiento cultural vasco. (*Ibid.*: 31)

Horra hor euskal berpizkunde baten hastapen sendoak. Politika berri bat besterik ez da falta:

En lo político mucho nacionalismo barato y sin esfuerzo para seguir consintiendo que todo nos lo han traído de fuera y que de fuera tenemos que seguir esperándolo todo. (*Ibid.*: 334)

Txillardegi eta Azurmendi

Belaunaldi berean etorriko dira lehen emaitzak. Kantitatea eta kalitatea. Txillardegi eta Azurmendi, esate baterako. Belaunaldi berean hasiko da munduarekin parekatzen euskal kultura, euskararen kultura. Ekoizpen oparoa ekarriko dute bi-biek. Beste herrialdeetan garatzen diren gaiak eta eztabaidak erabiliko dituzte, normaltasun osoz. Bat da bidea. Kultura jasoa sortu. Gogoeta egin kulturari buruz.

Lehen saiogile modernoa izenda genezake Txillardegi. Gutxi gorabehera, mendetan barrena saiogintza erlijiosoa lehenetsi duen kultura batean, munduko gaiez hasi da idazten. Hizkuntzalaritzaz bezala astronomiaz. Filosofiaz. Antropologiaz. Politikaz. Titulu batzuk aipatuko ditugu. Gai ezberdinak jorratzen dituzten liburuetan: *Huntaz eta hartaz* (1965), *Proyecto de manifiesto vasco* (1973), *Euskal kulturaren zapalketa 1956-1981* (1984), *Gertakarien lekuko* (1985), *Antigua 1900* (1993), *Euskal Herria helburu* (1994), *Santa Klara. Gure uharte ezezaguna* (2004), *Horretaz. Zazpi saiakera labur* (2007).

Gehiago dira hizkuntzalaritza hizpide hartzen duten liburuak: *Hizkuntza eta pentsakera* (1972), *Oinarri bila. Morfosintasian eta fonologian* (1977), 'La originalidad lingüística vasca a la luz de los fenómenos de sustrato' (1978), *Euskal Herriatik erdal herrietara* (1978), *Euskal gramatika* (1978), *Fonologiaren matematikuntza* (1979), *Euskal aditz batua* (1979), *Euskal fonologia* (1980), *Euskal dialektologiaren hastapenak* (1983), *Elebidun gizartearen azterketa matematikoa* (1984), *Euskal azentuaz* (1984), *Euskal azentuaz* (1987), *Soziolinguistika matematikoa* (1994; Xabier Isasirekin batera).

Literaturan ere sorkuntza-lan gogoangarriak utzi dizkigu Txillardegik: *Leturiaren egunkari ezkutua* (1957), *Peru Leartzako* (1960), *Elsa Scheelen* (1969), *Haizeaz bestaldetik* (1979), *Kosmodromo* (1984), *Exkixu* (1988), *Putzu* (1999) eta *Labartzari agur* (2005).

Euskal nobelagintzaren berritzea egotzi zaio *Leturiaren egunkari ezkutua* obrari. Lehen euskal nobela modernotzat hartu da. Ez gara hemen kritika literarioa egiten hasiko. Ez gara mintzatuko Txillardegiren literatur estiloak sortu dituen eztabaidei eta merezi izan ez dituen kritika estraliterarioei buruz.

Laburbiltzearen, Euskaltzaindiak eskaini duen Txillardegiren bibliografia hautatuan, 30 orrialdetako zerrenda ageri da. Jakinek osatu duenean, berriz, 40 orrialde: 40 liburu, 173 liburu atal, 1.500 artikulua eta 46 itzulpen, besteak beste.

Obra zabal horren barruan, leku askotan egin zuen gogoeta kulturari buruz. Beti ere, harreman estuan bere inguruabar politikoarekin. Kultura da Txillardegirentzat euskal nazioaren ardatza. Kultura jarri beharko luke lehen helburutzat euskal askapen mugimenduak. Krutwigen proposamen berbera da. Euskal Herriak jasaten duen zampaketak bi oinarri baitauzka bere ustez: soziala eta kulturala. Beraz, askapen borroka nazionalak batera egin beharko du iraultza soziala eta kulturala (Txillardegi 1994: 226).

Bikoiztasun hori gogoan hasiko da aztertzen euskal kultura, euskara, nortasun nazionala, munduan barrena loratzen ari ziren mugimendu antiinperialisten itzaletara. Ondorioz, marxismo ortodoxoak proposatzen zuen iraultzaren eskema zuzenduz, molde berezian antolatu beharko da askapenerako borroka: ezin da alderatu ohiko estatuen barruko iraultza antiburgesarekin eta, zertxobait gehiago, Asiako eta Afrikako

borroka antikolonialekin edo Israel, Quebec, Flandria eta bestelako nazioen esperientziarekin (*ibid.*: 244).

* * *

Azurmendiren ekarpena alde guztietatik da joria. Kantitatean idatzi du. Kalitate izugarria du. Neurtezina. Amil bat da irakurlearentzat. Bi-biengatik egon beharko luke nazioarteak sortu dituen filosofo handien artean. Hala esan genuen duela urte batzuk beste leku batean (Iturriotz 2010a: 9). Eta ez guk geuk bakarrik. Iruzkin berbera egin zuen Xabier Mendiguren Elizegik, harekin hizketan aritu zen beste norbaiten iritzia bereganatuz:

«Azurmendi anglosaxoia izan balitz, munduko intelektual handien artekotzat joko lukete denek» esan zidan noizbait lagun batek. (Mendiguren Elizegi 2010: 19)

Azurmendiren lana deskribatu nahi duenean, ezinean geratzen da ikertzailea. Behin saiatu ginen gu geu. Eta modu eliptikoa baino ez genuen aurkitu. Sentipenetara jaitsi behar izan genuen iradokitzeke filosofoaren garrantzia:

Hain maisuki ukitu dituen gaiak gogoratu besterik ez dago sakontasunetan zorabiatzeko. Hurbildu nahi duenak haren gogoeta oparoetara, beldurra ere sentitzen du, iristezintasuna, ezgaitasuna; irakurritakoari buruz zerbait idazteko erabakia hartzen duenari dardarka jartzen zaio esku, bihotzean. (Iturriotz 2010a: 9)

Eta horrekin guztiarekin batera, erruaren sentipen asaldagarria:

Lehen lerrotik, ia hasi baino lehen, ase uzten zaitu haren fintasunak, zure buruarekin haserrarazten zaitu haren duintasunak. (*Ibid.*: 17)

Jakinek orain arte osatu duen Azurmendiren obraren katalogoak honako emaitzak bildu ditu: 41 liburu, 118 liburu atal eta 523 artikulua. Liburu batzuk baino ez ditut aipatuko: *Hizkuntza, etnia eta marxismoa* (1971), *Kolakowski* (1972; Joseba Arregirekin batera), *Kultura proletarioaz* (1973), *Iraultza sobietarra eta literatura* (1975), *Gizona abere hutsa da* (1975), *Zer dugu Orixeren kontra* (1976), *Zer dugu Orixeren alde* (1977), *Errealismo sozialistaz* (1978), *Artea eta gizartea* (1978), *Arana Goiriren pentsamendu politikoa* (1979), *Nazionalismo/Internazionalismo Euskadin* (1979), *PSOE eta euskal abertzaletasuna (1894-1934)* (1979), *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan* (1989), *Gizaberearen bakeak eta gerrak* (1991), *Espainolak eta euskaldunak* (1992), *Demokratak eta biolentoak* (1997), *Oraingo gazte eroak* (1998), *Teknikaren meditazioa* (1998), *Euskal Herria krisian* (1999), *Etienne Salaberry II. Bere pentsamenduz (1903-2003)* (2003), *Espainiaren arimaz* (2006), *Humboldt: hizkuntza eta pentsamendua* (2007), *Volksgeist - Herri gogoia. Ilustraziotik nazismora* (2007), *Azken egunak Gandiagarekin* (2009), *Barkamena, kondena, tortura* (2012), *Bakea gudan. Unamuno, historia eta karlismoa* (2012), *Karlos Santamariaren pentsamendua* (2013),

Historia, arraza, nazioa. Renan eta nazionalismoaren inguruko topiko batzuk (2014), *Gizabere kooperatiboaz* (2016), *Hizkuntza, nazioa, estatua* (2017), *Beltzak, juduak eta beste euskaldun batzuk* (2018).

Euskal kultura leku jaso eta gorenera eraman du Azurmendik, batere zalantzarik gabe. Orain geuri dagokigu erabakitzea. Inopian jarraitu, Oteizak esan berri digunez, eta kanpoko gauzak lehenetsi, edo barrutik hasi jaten gaituen hutsunea betetzen.

Azurmendi, Kant eta Herder

Baina obrarekin batera, berme teorikoak ere jarri dizkio filosofoak kulturgintzari. Kulturari buruzko gogoeta ezin iradokigarriagoak ekarri dizkigu mundu zabaletik. Mamituta utzi dizkigu bere barruko sentiberatasunarekin.

Kulturaren izaera ulertzeko, Kanten filosofia da Azurmendik darabilen lehen laguntza. Konkretutasunaren kategoriarekin lotu-lotuta.

Lehen modernitate kartesiarra, antisentsista, mekanizista eta estatikoa, agorturik – Frantziako Iraultzak berak porrot egin eta errestaurazioa ekarri zuen, politikoki–, bigarren modernitatearen aldarrikapena izan zen konkretutasuna: arrazoimen abstraktuaren aurka, arrazoimen historikoa agertu zen; eredu organizista batetik gertuago, munduaren dinamikotasuna azpimarratu zen; epistemologikoki, bestalde, atzeman egin zen, ezer ezagutu ahal izateko, giza zentzumenak eduki konkretuak behar dituela erabili, inguruabar jakin bati lotu (Azurmendi 2007d: 131-132).

Kantek arrazoimen kartesiarraren mugak erakutsi zituen. Subjektuaren lehenetasuna, subjektibismoa argudiatu zuen (*ibid.*, Azurmendi 1989: 159). Sentipen subjektiboaren bidezko arrazoimenaren iraulketa kontzeptual horretan, raziotaltasunaren paradigmaren aldaketa horretan (Azurmendi 1996: 60), subjektutasun moral eta intelektuala autonomizatu du Kantek (*ibid.*: 65).

Arrazoimenak gidari bat behar du bere ahalmen analitikoa destolestuko badu. Baina, gidari hori ezin da izan, batetik, enpirismo hutsa, eta ezta espekulazio platoniko sentsista ere; aitzitik, lurlean eta lurrarekin behar du gidatu arrazoimenak, konkretuari behar dio begiratu lurlean (*ibid.*: 62). Hor aurkitu behar dira ezagutzaren oinarri aprioristikoak (Azurmendi 2007c: 14). Jarrita daude, horrekin, hizkuntzaren filosofia interesgune bilakatuko duten lehen kakoak.

Paradigma berriak balio norabidetzaille berriak dakartza: dibertsitatea, originaltasuna, askatasuna eta sormena, gizabanakoari begira ez ezik, giza kategoriak eraikitzen dituzten giza kolektibitateei begira; munduaren ikuspegi dinamiko berriak, bestalde, beti jartzen ditu ibilian gizabanakoa bezala gizadia, beti egiten, osatzen, hemen eta orain eraldatzen, plangintza matematiko hertsu bati erantzun gabe (Azurmendi 2007d: 133).

Irulketa epistemologiko horrek kultura beste optika baten bidez ikustea ekarri zuen berekin: Kantek berak aitortu du –eta hala azpimarratu nahi du Azurmendik– garai batean arazo filosofiko eta zientifiko gorenak besterik ez zituela aintzat hartzen, baina, hain zuzen, Rousseauk erakutsi ziola kultura, kultura egiaz gorena, herriarena dela, gizaki xehearena, eta hor behar dituela oinak hartu filosofiak (Azurmendi 1985:

150). Giza kategoriak moldatzen dituen herri edo nazio konkretu hori, ohiturak, hizkuntza, lekuan lekuko ekonomia, politika, zientzia, literatura da –geroago Goethek eta Humboldték errepikatuko dutenez– (Azurmendi 2007c: 180-182).

Eta Kantekin batera Herder.

Zientzia historikoen hastapena da Herderrek inauguratuko duen historiagintza berri baten aroa (Azurmendi 2007d: 80). Haustura historia abstraktu unibertsalarekin egiten da, noski: historizismoak zalantzan jartzen du progresuaren eta historiaren azken helburu razional ilustratua (*ibid.*: 147). Lehen historizismoak produktu historikotzat hartzen du giza fenomeno oro, erlatibotzat, alegia (*ibid.*: 270-271). Horixe bera eskatzen du Humboldték giza abere konkretu eta historikoaz pentsatu beharra baieztatzen duenean (Azurmendi 2007c: 186).

Historia indibidualitateen gauzapean konkretua da (*ibid.*: 147), indibidualitate sozial, kultural, nazional eta linguistikoa; gertakarien harian, nortasuna eta originaltasuna azpimarratzen dira (Azurmendi 1999a: 80).

Historia askotarikotasuna da, ondorioz, biziera ezberdinen aniztasun miragarria (Azurmendi 2003a: 145). Izan ere, gure planetaren lurrazala herriz, artez, kulturaz ugaria da; originaltasunez bete gaiztzen du historia (Azurmendi 2007d: 272). Herderren hitzak ekarriz, historia herrien bizitza da, kultur bizitza –ez politika, edo gutxiago politika– (*ibid.*: 107).

Herderren historizismoak, hain zuzen, kulturen historia egin beharra aldarrikatzen du: erakundeen historia alboraturik, eliteen historia alboraturik, herri xehea, biziera espontanea, kantuak, erritmoak, dantzak, ipuinak, poesia, mitologia, jakituria familiarra, komunitate-kontzientzia... hasten da aztertzen (*ibid.*: 111, 136). Kultura ez da klase batzuen pribilegioa, herritar xehea da kultura egiten duena (*ibid.*: 111).

Optika berri horretatik, aurkikuntza txundigarriak egin ditu. Israel herri nomada eta zarpailean, poesia paregabea atzeman du Herderrek, nazio beregaina erakusten duen beste mundu-ikuskerat bat (Azurmendi 2007c: 332). Poesia nordikoa guztiz originala iruditu zaio, halaber, esaterako, alemanak ordezkatu ezin dituen hizkuntzetan mintzo diren nekazari estoniar eta letoniarren ahotan entzun duenean (*ibid.*, Azurmendi 2007d: 97-98). Kantek bezala, errespetua eskatu du Prusiaren menpean dauden hizkuntza guztientzat (Azurmendi 2007d: 121). Arketipiko bihurtuko da Grezia, kultura klasikoa; Egipton, zelden kulturen, herri eskoziarren..., munduan ez dira amaitzen altxorrik (*ibid.*: 97-98).

Sentiberatasun erromantiko berriak ordura arte ireki gabe zegoen optika abiarazi du bat-batean: bertako hizkuntzak jarriko dira lehen planoan; foru-eskubideetan, ohiturazko eskubideetan atzematen da zuzentasuna; ahozko literatura, herri-poesia, folklorea, kantuak biltzen dira –Ingalaterran, Alemanian, Italian, Frantzia...–; herri nekazariari, herri xeheri hasten zaio begira (*ibid.*: 72-73).

Euskal Herriarentzat ere, abagune interesgarria irekiko du bigarren modernitateak, Europa guri begira jarriko delako ez ezik, guri begira jarriko den Europari begira jarriko garelako: R. M. Azkue, J. K. Gerra, Aita Donostia..., folklore zaleak, hizkuntzalariak, etnologoak..., herriaren jeinuaren obrak ikertzen hasi dira (Azurmendi 1986: 131); *epos* nazionala islatuko duen poesia batekin egiten da amets, Homero, Sofokles, Euripides, Platon, Virgilio, Ovidio... klasikoak itzultzen dira... (*ibid.*: 124-133).

Kultura jaso bat, euskaraz

Kultura jaso beharra aldarrikatu digute gerraosteko autore guztiek. Asmo baterakorra daukate. Lanean ikusi ditugu kultura jaso bihur zedin euskal kultura. Bakoitza bere esparruan. Bere neurrian. Bere erritmoan. Baina, zein hizkuntzatan jaso beharko da euskal kultura? Zein leku izango du euskarak euskal kultura jasoa eraikuntzan? Hemen ere adostasun txundigarria aurkituko dugu guztiengan. Aho batez baietsiko dute euskaraz aberastu beharko dela euskal kultura. Modu erradikalean. Ez da zalantza zipitzik agertzen inorengan. Euskal herritarrek erabil lezaketen beste hizkuntzarik ez du sortzen euskal kultura. Ez frantsesak. Ez espainolak.

Euskara maite zuten sakonki belaunaldi honetako kulturagileek. Modu ia tragikoan. Tragedia bat ari baitziren iragartzen euskararen gainean. Horrela bizi du Mirandek, adibidez:

Gure euskal-mintzoa galtzera doa, non ez bai' du zeozer laguntzen... Ezin uka, aatik, georren erruz ere izan dala euskera egoera tamalgarri ortaratu ba'da. Gaurko egunean, Euskotar zenbait gerade, euskeraren landubidean jardun; geure erritar askok ordea ez digute jarraitu nai [...]. Bestalde, eusko abertzale askok ez diote izkerari benetako maitasunik. Erderean bizi dira eta euskera ez dute *lingua del cuore, lingua del pane* bañoago, Italiarren esanetik. (Mirande, in Urkizu 1995: 46)

Kontzientzia argia daukate euskararen izaera erregresibo atzeraezinaz. Salvatore Mitxelenak erakutsi die zer izan zen euskara antzinatean. Nola joan den galduz, mendez mende, berea izan duen eremua. Ongi ikasi dio Arestik.

Guztion akorduan eta gogoan dagoan gauzea da, zelan gure euskal erri errukarria iltzeko eta galtzeko trantze gogor eta arrisku andian dagoan. Lehen euskaldunak izan ziren lurraldeetan orain Gaztelako erderean entzuten da. Erriojako altuetan toki-izen batzuk gelditzen dira bakarrik, lur orren euskalduntasun illaren proba bizia. Naparroako ballada aberatsetan kantabres zarren berbakuntzaren oiartzun eztiak galdu dira. Araba bera erdal erria da gaurko egunetan. Euskalerria itsasoaren kontra amiltzen da, jausiera zoro batean. Gipuzkoako eta Bizkaiko mendietako magaletan billatzen dau abaroa, babesa eta ezkutua. Eta emen bere, bein batean pobreak eta basatiak izan zirenen lur oneitan, atzera doa. Gure erri euskaldun jatorrak bere, erdalduntzen ari dira. Mungiako kalean, Durangoko plazan, Gernikako arbolearen pean euskeraz baiño erderaz egiten da sarriago. Eta batez bere Bilbo, uri andi orretan, euskal erriaren etsairik eta areriorik andienean. (Aresti 1986: 42)

Herri bat ikusiko du hilzorian:

Herri bat ikusten dut hiltamuan, bere azkeneko agonia lacgarrian. (*Ibid.*: 91)

Zaila zaio itxaropenari eustea:

Guretzat etorkizunik ez dela irudicen zait. (*Ibid.*: 92)

Hizkuntzaren gainbeherarekin dator nortasunaren gainbehera, herri baten suntsiketa:

Gure leinua galcen doa. Euskera util bat ez dute nahi. (*Ibid.*: 91)

Euskaldun berrien iraultza

Euskara gal ez dadin, mintzatu egin behar da. Dakienak. Eta, ez dakienak, ikasi. Gerraosteko kulturgileen artean, lehen lerroan ibili ziren asko eta asko euskaldun berriak izan ziren, euskara ikasitakoak, alegia. Mirande bat, Aresti bat, Krutwig bat, Txillardeggi bat.

Parisen ikasi zuen euskara Mirandek. Parisen sortu baitzen, lan bila joandako guraso zuberotarrengandik. Baina ez zioten irakatsi euskara. Gurasoak euskaraz aritzen ziren beren artean, baina haurrei frantsesez egiten zieten, gizartean hobe integra zitezen (Aristorena 2012: 19). Kantuzalea zen aita, ordea. Kantuan aritzen zen. Harengandik hartu bide zuen hizkuntza zaharraren muina. Eta mina. Hogeitatu urte zituenen hasi omen zen ikasten, Mendiola gipuzkoar apaiz iheslari batekin (*ibid.*).

Beste hizkuntza asko ikasi zituen, baina beti euskarari laguntzeko:

Nik, gaztea izan arren, zenbait hizkuntza ikasi ditut, euskarari laguntzeko, hain zuzen. (Mirande, in Peillen 2012: 37)

Krutwig ere euskaldun berria. Adierazia du, bere ohiko tonu dantzarian, nola ikasi zuen euskara:

A la edad de siete u ocho años [...]. Ya para aquellos momentos había empezado a estudiar euskara. Aparte de lo que había aprendido por medio natural, compré alguna Gramática y me dedicaba a estudiar. Como mi padre opinaba que perdía el tiempo inútilmente, me escondía debajo de la cama para que nadie se diese cuenta. (Krutwig 2014: 21)

Aresti euskaldun berria. Seta bereziz gogorarazi du, behin eta berriz, nola ikasi zuen euskaraz. Enpatia molde batez, bere inguruko erdaldunak euskaldundu nahi dituela ematen du, batzuetan:

Bertan [Bilbon] jaio nintzan orain ogetamar urte, aberriaren berbakuntzea galduta eduki familia batean. Euskalerrriaren eriotzearen ezagugarri eta señaile argi eta garbi bat nintzan ni nire umedenporan. Eta egun batean, amabi urte nitularik, nire buruaz lotsatu nintzan, euskaldun motz bat nintzala konturatu nintzan eta nire buruaz egin nintzan lotsatu. Eta andik liburu-denda batera joan nintzan, euskal ikaspide edo gramatika on bat erostera. (Aresti 1986: 42)

Asko kostata ikasi ere. Bizitza kostata:

Oraindik gogoratzen naiz zenbat ordu galdu nituen, urrikari honek, Axularren *Gero* Rebista Internazionaletik eskuz kopiaceen. (*Ibid.*: 86-87)

Borroka bat baita bizitza, hizkuntza:

Euskalduna banaiz, liburuen kontrako burrukaldi gogor eta luze batean euskaldundu naizelako. (*Ibid.*: 200)

Txillardegi euskaldun berria. Bere kabuz hasi zen euskara ikasten, ama zuela informante bakar. Blok handi batean euskal gramatika partikularra osatzen (Txillardegi 1994: 126). Liburu bakarren bat, hiztegi eta gramatikaren bat, irakasle laguntzaile batzuk... Ordu asko gauez. Eta poliki-poliki ikasiz joan zen.

Garai hartako euskaldun berriak ez ziren soil-soilik euskara ikasi zuten lagun multzo bat. Zerbait gehiago ziren. Euskaltzaleak. Eta, esan dezagun, euskaltzale ez ezik, abertzale sutsuak. Horrela uler daiteke euskalgintzaren abangoardia osatu izana. Ibon Sarasolak ezagutu zituen, eta mingostasun puntu batekin deitoratzen du gaur egun sortu den beste euskaldun berri eredu bat:

Orduko euskaldun berri guztiak, edo gehien-gehienak, euskaltzaleak ziren, euskaltzale petoak. Aldiz, gaurko euskaldun berri asko –ez denak noski, baina bai asko nire ustez– ez dira euskaltzaleak, euskaldunak lanorduetan dira eta lanorduetatik aparte erdaraz bizi dira. (Ibon Sarasola, in Izagirre 2010: 102)

Ez dakigu ongi zein garrantzi daukan Sarasolaren susmoak, baina bai, garai hartako euskaldun berrien artean, ezina zela euskara eta lana, euskara eta bizitza, euskara eta borroka bereiztea.

Euskara edo abertzaletasuna

Euskara maite ez ezik, euskara jarriko du belaunaldi horrek euskaltasunaren ardatz-ardatzean. Muinean. Mirandek:

Jakin bezate eusko abertzaleak eta, batez, ere, euskaltzaleek –oik baitira egiazko abertzaleak... (Mirande, in Larrea 1985: 46)

Amets egiten duenean ere, euskara hutsez mintzo den Euskal Herri batekin egiten du. Tonu jolastiz adierazi du, pertsonaiak lekuz aldatzen dituen parabola batean:

Burubero edo mehe batzuek nahi zuten erdara khendu edo behintzat bigarren mailan ezarri; eta euskara bat-eta-landua egin. Baina hori diktadura bati dagokio, ez zinezko demokrazia bati, huntan bakoitzak nahi duen bezala mintzatzeko zuzena baitu. (*Ibid.*: 123)

Praxi erabat kontsekuentea izan zuen Mirandek bere iritziekin. Erradikala:

Bere idazlanek arrakasta gutti zutela orduko euskaldunen artean idatzi zidan behin, *Haur besoetakoa* beste hizkuntza batean eman zezakeela [...]; gero beste eskutitz batean esan zidan, etsipenez idatzi zidala, ezetz, ez zuela sekulan inperio hizkuntza zapaltzaile horietan idatziko, bere idealen traditza litzatekeelako. (Mirande, in Peillen 1998: 15)

* * *

Krutwigek definitu zuen argien, agian, euskarak zeukan hizkuntza nazionalaren izaera. Nazio baten ezaugarrien artean, lehena baita harentzat hizkuntza (Krutwig 1979: XXIII, XXVI, 21). Eta, bigarren lekuan, berriro hizkuntza. Hizkuntzatik eratorritakoak, alegia: mentalitatea eta kultura. Gero etorriko dira, lekuan leku, gainerakoak: arraza-konposizioa, interes espiritualak, ekonomia, erlijioa... (*Ibid.*: 22)

Inguruabar horretan sortuko da Sabin Aranaren nazionalismoari egiten dion kritika erabakigarria, gutxietsi egiten baitzuen hizkuntza, arrazaren alde:

El Sr. Arana-Goiri influido por una tesis materialista a ultranza cree que la raza, es decir la parte material del hombre concreto es lo principal y desconoce la influencia que ejerce en el desarrollo de la persona humana el «ambiente» (milieu) y la cultura. (*Ibid.*: 26)

Krutwigek berak bildu dizkigu Aranaren adierazpenak:

Si nos dieran a elegir entra una Bizkaya poblada de maketos que sólo hablasen euskera y una Bizkaya poblada de bizkainos que sólo hablasen castellano, escogeríamos sin dubitar ésta segunda, porque es preferible la substancia bizkaina con accidentes exóticos que puedan eliminarse y substituirse por los naturales a una substancia exótica con propiedades vizcaínas que no podría cambiarla. (*Ibid.*)

Edo, beste leku batean:

Si fuese moralmente posible una Bizkaya foral y *euskeldun* (o con euskera), pero con raza maketa, su realización sería la cosa más odiosa del mundo, la más rastrera aberración de un pueblo, la política más inicua y la falsedad más estupenda de la historia. (*Ibid.*: 27)

Biribila da Krutwigen erantzuna:

Sin euskara no hay nación vasca posible. Y puestos en decir extremos absurdos, cabe decir que es más vasco un negro congoleño, educado desde joven en euskara, que sólo hable euskara y que haya vivido entre vascos, que un hijo de euskaldunes, con todos los apellidos vascos, pero que ignore el euskera. (*Ibid.*)

Bestela adieraztearren:

No hay duda de que es más vasco un individuo con todos sus apellidos castellanos, gascones y franceses que utiliza corrientemente la lengua vasca que otro individuo con todos sus apellidos euskaldunes, que hable mucho y mal de los estados opresores pero que no aprenda ni utilice la lengua vasca en su vida cotidiana. (*Ibid.*: 91)

* * *

Arestirengan ikusiko dugu berriro arrazatik hizkuntzara egin zen itzulia. Bera arrazaz euskalduna dela aitortzen hasiko da. Halere, arrazak ez dio euskaltasuna eskaintzen. Euskara behar du euskalduna izateko:

Ni euskaldun arrazakoa naiz, naiz-eta eztidan ardurarik ukaten arraza, eta egungo egunean uste dut euskalduna naizela, naiz-eta oraindik ez tudan euskararen jabetza oso bat lortu, nik nahi dudana jabetza, behintzat. (Aresti 1986: 26)

Sabin Aranari erantzuten dio, halaber:

Una Vasconia sin aizkolaris, sin auresku, sin boina, sin pelota, sin RH negativo y hasta con apellidos castellanos, pero con euskera seguiría siendo Vasconia. (*Ibid.*: 73)

Euskal etnia hizkuntzarekin adosten da bete-betean. Txillardegik garatuko zuen nazioaren definizio etnolinguistikoa dago ikuspegi horren atzean:

Gure etnia definitzen duen elementua da euskara, gure nazionalitatearen determinantea. (*Ibid.*: 231)³

Humboldt ageri da bi-biengan, oinarrian:

Entre lengua y mentalidad existe la relación de continente a contenido. (*Ibid.*: 101)

Oskorrik popularizatu zuen *Egun da Santi Mamiña* (Aresti 1964 [1979]: 90) bertsoan ageri den espiritua ez zen izan une bateko sorkaria:

Euskalduna izateko euskeraz egin behar da. Euskerarik gabe ez dago euskaldunik. (Aresti 1986: 201)

Hizkuntza da Arestiren aberria. Juan San Martin lagunari hartu dio formulazioa:

Hicieron exclamar a mi buen amigo, académico y escritor eibarrés Juan San Martin que su patria era el euskera. Aserto que con todas sus implicaciones, hago mío. (*Ibid.*: 73)

Arrueri buruz ari denean, euskararekin lotzen du abertzaletasuna:

Politika kontua alde batera utzirik, euskaltzale sutsu bat ikusten dut harengan, eta hau da niretzako egiazko euskal abertzaletasuna. (*Ibid.*: 146)

Egiatzapen historiko bat da. Garai zaharretatik aurrera, euskararekin izendatu dugu euskaldunok geure herria:

Los vascos, en nuestra lengua *euskaldunes* nos hemos llamado a nosotros mismos, y a nuestro pueblo, a nuestra comunidad le hemos llamado *Euskalerria*, por lo menos hasta que tan influidos por la mentalidad latina se ha introducido el concepto de patria o nación para sustituir el secular de pueblo o etnia. (*Ibid.*: 99)

Azken ondorioetaraino eraman zuen Arestik euskalduntasunaren definizio etnolinguistikoa:

Euskaldun es el que habla vascuence, o mejor dicho es aquella persona que tiene al vascuence como vehículo principal de se expresión humana. Esta es una cuestión que no la podemos poner a discusión. Seremos intransigentes en ello, y además, que quede claro, le llevaremos hasta su última consecuencia. (*Ibid.*)

Eta horrek egoera paradoxiko batean jarri zuen. Eskuin nazionalista burgesaren kritikak jasoko ditu, batetik, eta baita ezker espainolistarenak ere:

Nire kontra azken bolada honetan libratu den kanpaña nekagarri honetan, aurpegira bota didate adiskideek eta etsaiek, esku batekoek eta bestekoek, gure herritasunaren kontzeptu linguistiko bat dadukadala. (*Ibid.*: 201)

Oso interesgarria da, zentzu horretan, ezkerreko ideologia marxistarekin aurrez aurre aurkitzea Aresti euskaltzale marxista. Oso interesgarria nola argudiatzen zaion gainegituraren topikoa:

Esku batekoek barkatu egiten didate bekatutxo hau. Pentsatuko dute azken hitz batean, hizkuntza eta berekin dakartzkien gainerako fenomenoak (etnia, folklorea, e.a.), supra-estruturura hutsak direla. (*Ibid.*)

Marxista zen Aresti. Baina ezin du onartu marxismoak nazioekin eta, bereziki, kulturekin egiten duen sinplifikazioa. Txillardegiren borroka izan zen berori. Estrategiari begira haserretuta ibili ziren bi kulturgileak bat etorri ziren kritika horretan. Konstantinov izeneko ideologo marxista-leninista maiseatuko du Arestik, oso tonu zinikoan:

Hay muchos que piensan en la utopía de una humanidad uniformada, hablando un solo idioma. (*Ibid.*: 105)

Konstantinoven irakurketa ‘zientifikoaren’ arabera, halako hautapen ‘natural’ bat gertatuko da hizkuntzen artean:

Solo cuando el sistema socialista mundial de economía [...], cuando cada nación se haya convencido prácticamente de las ventajas de una lengua común, única, por encima de los numerosos idiomas nacionales, comenzarán a extinguirse los idiomas nacionales, para dar paso a un idioma universal, común a todos los hombres. (*Ibid.*: 105-106)

Jadanik ez zaigu bitxia egiten marxismo-leninismo ortodoxoak nazioaren eta nazionalitateen artean bereizgoa egiteko erabiltzen zuen ‘fintasun analitikoak’. Azkenean, hizkuntza aberatsenak nagusituko dira. Ez, noski, nazio aberatsenak. Hizkuntza gertakari linguistiko hutsa baita horientzat. Batzuek beste batzuek baino gaitasun handiagoa daukate, bere horretan:

Tras una prolongada colaboración económica, política y cultural, se dará la posibilidad de que, al principio, se destaquen de entre centenares de lenguas nacionales las lenguas más ricas de los grupos nacionales; es decir, lenguas comunes a varios conjuntos de naciones... hasta que más tarde surja una lengua universal única. (*Ibid.*: 106)

Badaki aldez aurretik Konstantinovek zein hizkuntza nagusituko den Sobiet Batasunean. Iragarle trebea da. Azterketarik ere ez du behar. Nabaritasun garbikoa da:

La Unión Soviética aportará su lengua más rica, naturalmente el ruso. (*Ibid.*)

Eta berdin Espainiak espainola, Arestik erantsiko duenez, ironia biziz:

El grupo de naciones hispánicas aportará esta lengua que ahora yo hablo, el castellano, sacrificando tres de sus lenguas, y las naciones americanas todas las lenguas amerindias. Los anglosajones sacrificarán hasta a su padre. Añadiremos el árabe, el urdi, el chino, acaso el japonés, y quien más chifle capador. (*Ibid.*)

Euskaltzale erradikala da Aresti. Gaur egun euskal herritarren artean gutxi onartuko duen baieztapen batekin frogatuko dugu noraino zen sakona Arestiren jarrera eta konpromisoa euskararekin. Euskal idazlea izatea zer den galdetu zaio:

Escritor vasco es el escritor que escribe en euskara; por lo tanto, no creo que el nombre de 'escritor vasco' convenga a Pío Baroja, por ejemplo. Blas de Otero y Gabriel Celaya son dos grandes poetas, pero no son poetas vascos, son poetas castellanos hasta las últimas consecuencias. (*Ibid.*: 229)

Espainolista omen zen Aresti (*ibid.*: 226). Kanpaina bat ere antolatu zioten aurka. Boikota eskatu zitzaion. Espainolista asko nahiko genuke, gaur egun, Arestiren espainolismoa berdintzen. Eta vasquista asko. Eta autonomista asko. Eta, bat baino gehiago, independentisten artean.

* * *

Esan dugu lehenago Oteizak ez zekiela euskaraz. Ez zekien euskaraz egiten. Mintzatzen. Euskarari buruz ikerketa asko egin zituen, halere. Beti zebilen bere informatzaileei galdezka. Estetikatik hausnartu zuen euskara. Filologoek ez zioten barkatu intromisio moduko hori. Euskaraz jakin ala ez, aztergai dugun sasoian, euskarari buruz esan zituenak ez dira berdinduko erraz:

Somos un hombre, con un idioma y un estilo. Dentro del idioma está el hombre y dentro del hombre su estilo. (Oteiza 1971: 20)

Antropologia oso bat euskararentzat. Ekarpentxo gehigarri bat Krutwigek zapuztu duen arrazaren kontzeptuari buruz:

Nuestra verdadera raza está dentro de nuestro idioma. (*Ibid.*: 22)

Txillardegik bere egingo duen nazioaren izaera etnolinguistikoa. Eta Humboldtekin:

La patria propiamente es la lengua. (Oteiza 1983: 360)

Eta Victor Hugorekin, hizkuntza da euskaldunon erlijioa:

Nuestro sentimiento de lo religioso es como la independencia de la mano del artista que se pone en la palabra, nuestra religión en la lengua, lo sagrado en la palabra oral. (*Ibid.*)

* * *

Txillardegik oso goiz garatu zuen hizkuntzari buruzko bere pentsaera, *Branka* aldizkariaren lehen zenbakian idatzi baitzuen artikulu fundazional bat gaiari buruz (Txillardegik 1966). Bertan Humboldtten teoriak garatuko ditu eta hizkuntzalari eta filosofo askoren iritziekin erkatuko eta osatuko. Zer da hizkuntza Txillardegirentzat?

Antola-molde, mundu-ikuskerak, gauzen banaketa, denaren tajuera. (*Ibid.*: 37)

Zehatzago:

Nola eratzen du munduari buruzko esperientzia, nola tajutzen ikasien eta ikusien bilduma? (*Ibid.*: 40)

Eguraldia deskribatzen eta islatzen du, lekuan leku. Koloreak moldatzen ditu. Ahaidetasun-egiturak banatzen. Lekuan leku. Herriz herri. Herri guztietan ezberdin:

Herri baten sorkari nagusia, herri baten tresna nagusia, hizkuntza da. [...]. Hizkuntza da herri baten arima. (*Ibid.*: 53)

Hizkuntzak badauka beste egitura bat, ordea, haren estatusa baldintzatuko duena. Egitura soziolinguistikoko baten barruan ulertu behar da. Egitura politiko jakinarekin erkatuta. Gurean, espainolaren eta frantsesaren indarraren azpian. Espainiaren eta Frantziaren boterearen menpean. Euskararen gutxiespena ulertzeko, beraz, erregimen kolonial bat hartu behar da aintzat, Txillardegiren ustez. Politika inperialista bat, Hegoaldean bezala, Iparraldean. Hizkuntza da estatu inperialista orok darabilen asimilaziorako arma nagusia. Alienazio nazionala alienazio linguistikoa da.

Estatuak bermatzen du hizkuntza. Estaturik gabeko herriek galdu egiten dute hizkuntza:

Halere gauza jakina da, beren zerbitzuko erresuma bat bederen ez duten hizkuntzak oro, hiltzen dirala; [...] Hizkuntzak ez dira ahultzen edo gotortzen beren moldea edo barne-egiturarengatik,

politikazko azkatasun ala menpekotasunarengatik baizik. Azkatasunik ez duten herriak beren hizkuntza galtzen dute. (Txillardegik 1994: 166)

Euskal Herriaren askapenaren aldeko mugimenduak borroka antikolonialak hartu behar ditu eredutzat. Are gehiago, estatu zapaltzailearen menperakuntza-aparatu nagusia hizkuntza bada, berorren inposaketaren aurka ez borrokatzea bidegabea da, irrazionala eta ergela. Aitzitik, euskara ikastea ekintza iraultzailea da. Militante guztiek behar dute euskaldundu.

Kultura eta politika uztartzen dituen azterketa horretatik etorriko da Txillardegiren etnonazionalismoaren kontzeptua: komunitate nazional bat, oroz gain, komunitate etnikoa da, alegia, komunitate linguistikoa, oinarrian.

Sartreri ikasi zion Txillardegik hizkuntzari buruzko filosofia politiko hori, beste gauza askorekin batera. Horrela laburbiltzen ditu irakaslearen kategoria nagusiak:

Batetik, unibertsal abstraktua dago, gobernuak eta enparauek aiputan izan ohi dutena; eta bestetik, unibertsal bakun eta konkretua, hezur-haragizko gizakiez osatutako herrietan aurkitzen dena. Hauxe da –zioen Sartrek– kolonizatuen iraultzetan mamitu nahi izaten dena, hain zuzen. Zeren-eta gizakiak, beren egoeran, beren kulturaren eta beren hizkuntzan hartzen baititu; eta ez kontzeptu huts gisa. (Txillardegik 2007: 36)

Kategoria horietatik eratorriko dira Sartrearen oinarri linguistiko nagusiak:

Hizkuntzan ikusten du Sartrek Euskal Herriaren ardatza (gure gazteek ez dakite; baina ezker espainolistaren lerroetan «euskara gain-egitura burgesa dela» aldarrikatzen zen ozenki eta harro-harro). (*Ibid.*: 37)

Eta, ondorioz:

Kolonizatu bat bere hizkuntzaz mintzatzea berez da ekintza iraultzailea. (*Ibid.*: 38)

Euskara batua

Euskaltzale horiek bazekiten euskara, euskal kultura goren baten adierazpide eta tresna bihurtu nahi bazuten, hizkuntza moduan landu beharko zela, araztu, eguneratu. Bazekiten euskara bakarra beharko zutela eraiki. Euskara batua.

Mirandek lapurtera klasikoaren hautua egin zuen hasieratik:

Nik lapurtar klasikoa onartu dut. [...] ororen gaineratik batasuna behar dugulakotz eta dialektu hori delako horretarako egokiena [...]. Nik uste dut lapurtar klasikoaren aldeko higikun hau dela izan, euskara kultur-bidean jartzeko azken urte hauetan egin den saiaketa handiena. (Mirande, in Peillen 2012: 38)

Krutwigek 1942an adierazi zuen jadanik batasunaren beharra Euskaltzaindian. Mirandek egingo zuen bezala, lapurtera klasikoa proposatu zuen literatur hizkuntzatzat (Krutwig 1979: XXIX, 34). Lehen tradizio kultua izan zen euskaldunontzat, eta lehen

kulturgile gogoangarriak eman zituen: Axular, Joanes Etxeberri, Joanes Leizarraga... (*ibid.*: XXXV, 46-47, 54).

Villasanterena izan zen lehen proposamena, Euskaltzaindirako sarrera hitzaldian aztertu baitzuen 1952an. Euskaldun guztientzat da ulergarria, euskaldun guztiak batzen ditu (Villasante 1979: 81-83). Horrez gain, Krutwigek behar zuenez, terminologia greko-latinoa onartzen du (Krutwig 1979: 47).

Arestiren abiaburua antzerkiari buruz ari denean islatzen da ongi. Euskaraz baino ez du ulertzen euskal antzerkia. Arazoa da zein euskaratan taularatu behar diren testuak, kontuan harturik bat-bateko lotura behar dela:

Herri bakoitzean, komediak bertako euskeran eman behar dira, baina eskribitzaileak ezin eskribi dezake komedia bat mila euskera diferentetan. Euskal komediak euskera batu batean eskribitu behar dira. (Aresti 1986: 31)

Euskara erraz, herrikoi eta mundukor bat, euskara bakar bat eskatuko du, berehala:

Euskeraz teatro moderno bat antolatu nahi badugu, euskera errez, herrikoi, mundukor eta bakar bat erabili behar dugu. (*Ibid.*: 57)

Konturatu da, gainera, euskara batuak arrakasta duela irakurleen artean:

Herriak euskeraren batasuna eskatzen dik aldarrika. Guri jentea zetorkunean, hau egiten zeikun lehen galdera: Euskara batuan al daude zuen liburuak? Gereñok haur-ipuiak eraman zitik feriara; bi edizio egin zitik ipuin bakoitzetik bata bizkaierazkoa, eta bestea euskera batuan edo h-duna gutienez. Azken hau agortu dik eta bizkaierazkoarik oso *guti guti* saldu dik. (*Ibid.*: 163)

Euskara batua eraiki behar horretan, kritika larria egin zion Arestik Euskaltzaindiari: immobilismoa. Bat egin zuen horretan Txillardegirekin. Galiziako akademiko lagun galegista bati zuzendu zion eskutitz batean nabari da ezinegon hori:

Vuestra Academia ya ha dado las normas ortográficas. La nuestra en mucho más cementerio, que es de cadáveres, y no hace nada. Entonces nos hemos reunido los escritores progresistas, y juntamente con las organizaciones de escuelas vascas y los de la campaña de alfabetización de adultos hemos llegado a una base firme de comienzo de unificación de la lengua [...]. Puedo calcular que en estos momentos un 35% del pueblo está con nosotros y dentro de 7 años el 90% lo estará. Avance gigantesco cuando hace 7 años estábamos en esta línea, Mirande en París, yo en Bilbao y Krutwig en el exilio rojo. (*Ibid.*: 166)

Txillardegi: batuaren arkitektoa

Baina, euskara batuaren auzia barrenetik ezagutzeko, ezinbestekoa da Txillardegiren esperientzia aintzat hartzea.

Talka Euskaltzaindian hasi zen. Euskaltzaindian ezagutu zuen utzikeria izango du Txillardegik lehen bultzagilea: erdara hutsean egiten ziren bilerak. Batzuek, Urkixok edo Olabidek, euskaraz ez zekitelako. Beste batzuk, erdaltzaleak zirelako. Eta, horien artean,

Orixe aipatzen du Txillardegik (Agirre 1996: 49). Krutwigen lekukotasuna ere badaukagu:

He sido quien todavía en vida de Azkue he introducido en la Academia de la Lengua Vasca la costumbre de que en las reuniones que se celebran se emplee la lengua vasca como vehículo de la conversación. (Krutwig 2014: 310)

Errealitate erdalzale hark sinestezintasuna sortu zuen gazteen artean. Eta jarrera aldatu beharraz ohartaraztea:

Hots, guk, orduko gazte abertzaleok, geure herriaren eta geure kaletarron mintzabide bihurturik nahi genuen euskara. Hortxe somatzen zen bi euskaltzale belaunen arteko hauskunea. (Txillardegik 1994: 135)

Hiru eginbehar jarriko dizkio, orduan, euskalgintzari: batasuna, erabilpena bultzatzea eta lan politikoa egitea euskararen alde. Erabilpenaren inguruan sortarazi ziren ika-mika handienak:

Praxi euskaldunera bultzatzen gintuen honek; eta, beraz, aurreko euskaltzale askorekin, gehienekin egia esan, tope egitera; eta ezpai mingarrietan tratatzera eta minberatzera. (*Ibid.*: 136)

Borroka politikorik egin gabe, euskararen gainbeherak konpontzerik ez zeukala argi atzeman zuen Txillardegik, bestalde:

Euskal eskola lortzeko, euskal unibertsitatea eraikitzeko, euskal prentsa bultzatzeko, administrazioan eta ekonomiaren munduan euskara sartzeko, 'politika' egin behar zen. Egoera politikoa aldatu behar zela; eta hasteko, fazismoa uzkaile. Noski! (*Ibid.*: 137)

Esate baterako, elizetan euskararen erabilpena sustatzeko, Euskal Herri osoko apaizei dei bat egin diezaiera eskatuko dio Euskaltzaindiari:

Euskaltzaindiak dei bat egingo dio Elizari, Ahuñemendiz hunaindiko eta haraindiko apezpiku eta erretore guziaz kopia bidaldurik, apaizak euskeraz ez predikatzea letra guziarekin kondenatuko du, etsenplu lotsagarri batzuk aipatuz. (*Ibid.*: 164)

Edo, zentzu politiko sakonagoaz, frankismoari aurre egin diezaion:

Askotan agertu da Euskaltzaindia koldar eta Franco'ren morroi, baiña gutxitan ausarta eta euskeraren zerbitzari [...].

Sei urte huntan ongi ikusi dut [...] Euskaltzaindia legun-legun eta koskarik gabe moldatzen dela Madrille'ko gobernu etsaiarekin. Zergatik? Euskaltzaindiak, oro har, gehiago begiratzen diolako Gobernuaren aginduari, euskerari baiño; gehiago agiri delako Franco'ren alde, euskeraren alde baiño [...].

Politikarik egin nahi ez duela aitzakia, frankismo hutsa baizik ez du egiten Euskaltzaindiak, eta euskeraren borrhoroen laguntzaille billakatzen. Zenbat aldiz oldartu zaio Euskaltzaindia Gobernuari, edo euskera dela-bide ahakarrik edo kalapitarik izan? (*Ibid.*: 165)

Euskararen tipologiari buruz, nabarmena zen amila belaunaldi zaharraren eta berriaren artean. Batzuek euskara garbia bultzatzen zuten, eta besteek euskara batu berri bat eskatzen zuten:

Euskara ‘garbia’ eta euskara ‘mordoiloa’ren arteko eztabaida latza zegoen euskaltzale bazterretan. Orduko abertzaleak, oro har, garbizaleak ziren; eta gazteok, edo gazte batzuk bederen, «garbizale» samar izanik ere, gehiegikerien kontrakoak ginen. (*Ibid.*: 145)

Arantzazun, 1956an antolatu zuten bileran, eskakizun zehatzak egin zizkion Txillardegik Euskaltzaindiari: erakunde horren betekizuntzat jarri zituen euskararen batasuna eta garbizalekeria guztien gaitzespena egitea. Arrakastarik ez zuen lortu proposamenak (*ibid.*: 148).

Handik bi urtera, 1958an, hain zuzen, deklinabidea eta aditza batzen has dadin eskatuko dio Euskaltzaindiari. Berrero ere alferrik. Izan ere, bere etsipenerako, indartzuz zihoan batuaren aurkako korronea.

Bien bitartean, bere kabuz hasi zen erabakiak hartzen Txillardegi. *Peru Leartzako* argitaratu zuenean, bokale bikoitzen artean *h* letra erabiltzeko araua ezarri zuen (*ibid.*: 151).

Euskaltzaindiaren Laguntzaileak erakundea sortuko du ondoren. Euskaltzaindian bertan helburu jakin batzuk garatzeko asmoa du: euskara literarioa lagundu, hiztegi orokor bat bultzatu, literatur lehiaketak sortu, antzinako testuak berrargitaratu, euskal hizkuntza eta literatura irakatsi eta idazle hasiberriak lagundu.

Ekimen horrek ez zuen jaso batere erantzunik. Aitzitik, dena izan ziren trabak, etsaigoak eta *infiltrazio* salaketak. Are gehiago, lehen aldiz atxilotuko du Guardia Zibilak:

1960ko abuztuaren 18an Goarda Zibilak atxilotu ninduen Antiguako etxean. Euskaltzaindiaren Laguntzaileak erakunde berriarentzako proposamenak nire sinadura baitzeraman bi hilabete lehenago, ondorioak ateratzea ez da batere zaila. Behin eta berriz tokatu izan zait Euskaltzaindian bertan ‘elemento conflictivo’ izateko eraso jasan behar izatea... Ez da gaurko kontua; ezta 1978koa ere. (*Ibid.*: 157)

Batzen nagusi bat eskatu zion Euskaltzaindiari, orduan, zehazki, ortografia, aditz paradigmak eta deklinabidea batzeko. Erantzunik jaso ez duenez, Euskal Idazkaritza sortuko du Baionan Txillardegik. Lehen erabakiak ere hartuko dituzte: ortografiaz, *x*, *tx*, *ll*, *dd*, *tt*, *nb*, *np* onartzen dira; *ba*, *bait* eta *ez* aditzari lotuak idaztea erabakitzen; deklinabide osoa adosten; aditza; bokale bikoitzen artean eta hasieran *h* letra daramaten hitz batzuen zerrenda eskaintzen; toponimo zerrenda bat; aurrizki eta atzizkiak. Eta dei egiten zaie idazleei:

Batasunari buruz, euskaltzale guzietan erabaki hauek betetzen hasteko eskatzen diegu; eta bereziki Euskaltzaindiari egiten diegu dei bat, bere aipamen guztien gure erabaki hauek aztertu ondoren onar ditzan. (*Ibid.*: 170)

Saiakera antzu horien guztien ostean emango du dimisioa Euskaltzaindian Txillardegik, 1963an, Baigorriin:

Behar bada, Euskaltzaindia, Araudiak besterik oihukatu arren, hauetako bat dugu, eta euskeraren bizia bera etzaio sobera axolarik. Huntara ba litz, argi eta garbi jakiñarazi nahi dut barrenean ez nukeala nik fitsik egitekorik izango. (*Ibid.*: 162)

Dimisioa Euskaltzaindian, baina ez euskara batua osatzeko eta indartzeko ahaleginean. Gorago aipatu dugun obra aztertu besterik ez dago, atzemateko nolako ekarpenak egin dituen Txillardegik morfosintaxiaz, fonologiaz, semantikaz, hitanoaz, dialektologian edo toponimian.

Azurmendi eta Humboldt: hizkuntzaren filosofia berri bat

Kulturgileak euskararekin tematu diren bitartean, beste berme baten bila joan da Azurmendi: hizkuntzaren izaerari buruz nahi du jakin. Txillardegik hizkuntzalaritzarekin egin duen bidea errepikatuko du filosofoarekin.

Humboldtekin egingo du lehen urratsa, hain zuzen. Hizkuntzaren filosofia berri bat garatu baitu Humboldt, kategoria kantiarrei guztiz lotua. Kanten arabera, hizkuntza errealitate espirituala da, espirituaren borroka bat, autokreazio bat, geldigabekoa, historikoa, ni bat, nortasun jakin bat (Azurmendi 2007c: 198-199). Oinarri horiexek garatzen ditu Humboldt, hain zuzen: pentsamenduak darabiltzan kategoriak hizkuntzaren kategoriak dira; alegia, hizkuntzaren bidez sinbolizatzen dugu mundua – hizkuntzak egiten gaitu, agian– (*ibid.*: 102-104). Baina hizkuntza gertakari kolektiboa denez, ezin dugunez gure bakartasunean eraiki gero partekatu beharko duguna, hizkuntza bakoitzak bere karakterea du, hizkuntza bat pertsonalitate burujabe bat da (*ibid.*: 195), guztiz lotua sortu baita darabilen nazioaren bizitza guztiarekin (Azurmendi 2007d: 20-21). Nazioak, karaktereak eta hizkuntzak adostuta ikusten ditu Humboldt: hizkuntza bizitza historiko konkretuaren espresioa da, nazioaren arima, mundua ikusteko modu partikular bat (Azurmendi 1999a: 79; 2007c: 61, 62, 66).

Ondorioz, hizkuntza ez da bakarrik gramatika bat, zerbait gehiago da: historia da, literatura, kanta, eskolak, auzo-hizkuntzak, politika, propaganda-mekanismoak, eliza..., unibertso oso bat da hizkuntza, Azurmendik zehazten duenez (Azurmendi 2007c: 415). Eta bizitza historikoaren espresioa izaki, hizkuntza beti da kreatiboa, aktiboa (*ibid.*: 7, 63), historian garatzen da, gizarte bizitzan, kulturgintzan indartzen eta ahultzen da.

Harreman holistiko hori ezaguturik, hizkuntzaren filosofia berri hori txertatuko da, hain zuzen, Alemaniako iraultza literarioaren muinean: Goethek bat egiten du Herder eta Humboldt gogoetekin (Azurmendi 1999a: 80), balizko Alemania alemanaren gainean eraikiko da, sendoa izango bada, oinarritz.

Bigarren modernitatearekin, izugarri zabalduko da hizkuntzekiko interesa, hizkuntzen praxira eramango da ahalegin entziklopedista ilustratua: Babelgo dorrea ez da zigor bat izango, jadanik aberastasuna da; izan ere, hizkuntza bakarria proposatzea, frantsesa, demagun, Frantziako Iraultzaren hizkuntza politika terrorista justifikatzea da, mundua izugarri pobretzea, eta mundua aberastu nahi duenak hizkuntzen aberastasuna bermatzen ahalegindu behar du (Azurmendi 2007c: 137).

Hizkuntza, karakterea eta nazioa uztartzen dituen mugimendua, ordea, ez da eskusiboki alemana: Azurmendik ongi frogatu duenez, tradizio oso luzea du pentsamenduaren historian: Herodotorengana joan beharko genuke sustrai bila, edo Tomas Akinokoarengana; eta handik aurrera, ia unibertsalki aipatzen da, Lockerekin, Condillacekin... (*ibid.*: 43, 175). Geroztik ere, asko izan dira Humboldtten filosofia onartu eta garatu duten autoreak. Hari luze horrekin batera agertu da, gurean, Txillardegi (*ibid.*: 284-304, Azurmendi 2007b).

Eztabaida hori gaurkotzeko ahaleginari lotu zaio Azurmendi, hain zuzen, azken saiakeretan: Wundt, Vigotski, Cassirer, Ortega, Wittgenstein, Davidson, Sapir, Whorf, Pinker, Fodor, Steiner, Chomsky... aztertu ditu, beti bezala, gogoz eta grinaz, kritika-ahalmena zorrotz batzuetan, eusleku berriak bilatuz, gehienetan, berak bermatu nahi duen tesiarentzat (Azurmendi 2007c: 352hh, 1999b).

Polemika ez da amaitu gure artean. Noizean behin sortzen baita hizkuntzaren eta mundu-ikuskeraren arteko harremana eta, ondorioz, hizkuntzak nazioa egiten duelako hipotesia lau abertzale zororen dogma ideologikoa dela baieztatzerako datorren baten bat (Azurmendi 2007b: 92-93). Eta hor egongo da Azurmendi. Adi. Azti. Titan baten indarrarekin.

Oharrak

1. Ikus euskara batuaren hasieran egon ziren garbizaleen eta mordoilo zaleen arteko gatazken kronika interesgarri bat, JAKIN aldizkariaren sorreran girotua, eta bertan Joseba Intxaustik izan zuen protagonismoa (Azurmendi 2007a).
2. Beste autore batzuen ekarpenekin alderatu eta osatu ditugu datuak guk: Aldekoa (2008), Kortazar (2003) eta Zabala (1981).
3. Ikus, halaber: «Una Vasconia sin lengua vasca no es Vasconia» (*ibid.*: 73). Edo: «Vasco es el que habla vascuence, y pueblo vasco es el que habla vascuence» (*ibid.*). Edo: «El vascuence es el fundamento de la vasca» (*ibid.*: 99). Edo: «No basta para ser vasco el haber nacido en Vasconia» (*ibid.*).

Bibliografia

- Agirre, Joxean (1996): *Hitza hitz. Txillardegirekin solasean*, Donostia, Elkar.
- Aldekoa, Iñaki (2008): *Euskal literaturaren historia*, Donostia, Erein.
- Anaut, Dabid (2013): *Euskararen kate hautsiak. Memoria de la represión lingüística*, Donostia, Euskal Memoria Fundazioa.
- Aresti, Gabriel (1964 [1979]): *Harri eta Herri*, Donostia, Luis Haranburu.
- (1976): *Poemak I-II*, Donostia, Kriseilu.
- (1986): *Artikuluak. Hitzaldiak. Gutunak*, Donostia, Susa.
- Aristorena, Pablo Joxe (2012): 'Jon Miranderen biografiaz', in Txomin Peillen: *Jon Mirande, olerkaria*, Bilbo, Euskaltzaindia, 17-30.
- Azurmendi, Joxe (1978a): *Artea eta gizartea*, Donostia, Luis Haranburu.
- (1978b): 'Euskara', XIX. mendeko aldizkari alemana', JAKIN 7, 108-122.
- (1981): 'Euskal literaturaren orainaz eta geroaz', in Askoren artean: *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea.
- (1985): 'Victor Hugo Euskal Herrian', JAKIN 37, 137-166.
- (1986): 'Orixe-ren inguruko garai-giroaz', JAKIN 39, 119-139.

- (1989): *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan*, Donostia, Susa.
- (1991): 'Hitzaurrea', in Immanuel Kant: *Prolegomenoak*, Bilbo, Klasikoak.
- (1992a): 'Esencia y esencialismo: análisis de un concepto. Notas para una relectura de Herder', in Xabier Palacios (arg.): *Ética y nacionalismo*, Gasteiz, Nazionalismo Konparatuen Ikasketarako Institutua, 163-220.
- (1992b [1998]): *Espainolak eta euskaldunak*, Donostia, Elkar.
- (1996): 'Kant eta Mendelssohn: arrazoimena ezbaian', *Uztaro* 16, 57-65.
- (1997): 'Metafisikatik historiara', in Gottfried Wilhelm Leibniz: *Metafisikako diskurtsoak*, Donostia, Jakin, 7-30. *Jakin Irakurgaiak* bilduma 5.
- (1999a): 'Goethe: literatura nazional unibertsala', JAKIN 111, 63-99.
- (1999b): 'Txillardegiren saioa: hastapen bila', JAKIN 114, 17-45.
- (2003a): 'Humboldt eta historia: filosofia baten bila', *RIEV* 48(1), 143-161.
- (2003b): 'Victor Hugoren etxean Pasaian', JAKIN 138, 11-30.
- (2006): *Espainiaren arimaz*, Donostia, Elkarlanean.
- (2007a): 'Hizkuntz ereduaren eztabaida. Jakinlariaren bilerak', JAKIN 158, 77-120.
- (2007b): 'Hizkuntza, askatasunaren espazioa', in Begoña Bilbao Bilbao, Karmele Perez Urraza, Kepa Perez Urraza (argk.): *Paulo Iztueta. Euskal pentsamenduaren eraikitzaile*, Bilbo, EHU, 79-108.
- (2007c): *Humboldt: hizkuntza eta pentsamendua*, Bilbo, UEU.
- (2007d): *Volksgeist - Herri gogoa. Ilustraziotik nazismora*, Donostia, Elkarlanean.
- (2009): *Azken egunak Gandiagarekin*, Donostia, Elkar.
- Barandiaran, Joxemiel (1973): *Obras completas III*, Bilbo, Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca.
- (1974): *Obras completas IV*, Bilbo, Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca.
- (1995): *El hombre primitivo en el País Vasco*, Donostia, Orain.
- Irujo, Xabier; Urrutia, Iñigo (2011): *A Legal History of the Basque Language (1789-2009)*, Donostia, Eusko Ikaskuntza.
- Iturriotz, Ander (2010a): 'Zergatik Azurmendi?', *Hegats* 45, 9-17.
- (2010b): 'Azurmendi edo konkretutasuna', *Hegats* 45, 85-162.
- Izagirre, Koldo (2010): *Autopsiarako frogak*, Donostia, Susa.
- Juaristi, Jon (1983): 'Aintzin solasa', in Gabriel Aresti, Joseba Sarrionandia, Jon Juaristi: *T. S. Eliot*, Donostia, Hordago.
- Kortazar, Jon (2003): *Euskal literatura XX. mendean*, Zaragoza, Prames-Las Tres Sorores.
- Krutwig, Federiko (1979): *La nueva Vasconia*, Donostia, Ediciones Vascas.
- (2014): *Años de peregrinación y lucha*, Tafalla, Txalaparta.
- Larrea, Jose Maria (1985): *Miranderen lan kritikoak*, Iruñea, Pamiela.
- Mendiguren Elizegi, Xabier (2010): 'Txango bat, Azurmendiren liburuetan barrena', *Hegats* 45, 19-26.
- Oteiza, Jorge (1971): *Quousque tandem...! Ensayo de interpretación estética del alma vasca*, Donostia, Txertoa.
- (1983): *Ejercicios espirituales en un tunel. De antropología estética vasca y nuestra recuperación política como estética aplicada*, Donostia, Hordago.
- Peillen, Txomin (1981): *Jon Mirande-ren idazlan hautatuak*, Bilbo, Gero.
- (1989): 'Euskaldun maiteok, agur!', *Euskera* 34(1), 435-465.
- (1998): 'Jon Miranderen ordeinua bere lekuan', JAKIN 106, 11-30.
- (2012): *Jon Mirande, olerkaria*, Bilbo, Euskaltzaindia.
- Renan, Ernest (2004): *Zer da nazioa?*, Bilbo, EHU.
- Sudupe, Pako (2011): *50eko hamarkadako euskal literatura*, Donostia, Utriusque Vasconiae.
- (2012): *Kontagintza, Zornotza, Erroteta*.
- Torrealdai, Joan Mari (1982): 'Euskararen zapalkuntza (1936-1939)', JAKIN 24, 5-73.
- (1998): *El libro Negro del Euskera*, Donostia, Ttartalo.
- (2001): 'Hizkuntz politikaren auzia', JAKIN 123-124, 11-164.
- (2018): *Asedio al euskera*, Donostia, Txertoa.
- Txillardegi (1966): 'Hizkuntza eta pentsakera', *Branka* 1, 35-57.
- (1994): *Euskal Herria helburu*, Tafalla, Txalaparta.
- (2007): *Horretaz. Zazpi saiakera labur*, Donostia, Elkarlanean.

Urkizu, Patri (arg.) (1995): *Jon Miranderen gutunak (1948-1972)*, Donostia, Susa.
Villasante, Luis (1979): *Historia de la literatura vasca*, Oñati, EFA.
Zabala, Enrike (1981): *Euskal alfabetatzeko literatura*, Lazkao, Pax.

JAKIN
Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus